

GASTEIZKO AUTOESKOLEN EBAZPENA

Espedientea: 7/2012

Bilbo, 2015eko apirilak 29

Lehiaren Euskal Kontseilua

Dña. María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Dña. Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

AURKIBIDEA:

I. AURREKARIAK.....	1
II. ENPRESAK.....	7
III. MERKATU ADIERAZGARRIAREN ANALISIA.....	9
1. Merkatu adierazgarriaren definizioa.....	9
2. Zerbitzua desberdintzeko faktoreak.....	10
3. Tarifaren osagaiak.....	10
4. Eskariaren elastikotasuna.....	11
5. Gasteizko autoeskolen merkatua.....	11
IV. EGITATE FROGATUAK.....	12
V. ZUZENBIDE OINARRIAK.....	18
1. Prozesuko alderdiak.....	18
2. Jokabideen sailkapena. Tipikotasuna eta zuzenbide-kontrakotasuna.....	21
3. Arau-haustearen larria.....	28
4. Enpresen erantzukizuna arau-hausteetan.....	29
A. Aranbizkarra, Leceta eta Zadorra.....	30
B. Gorbea.....	30
C. Álava, Añua, Claxon, Gasteiz, Mendiko, Olarizu, Arciniega, Km0, San Prudencio, Zaldivar, Mendizorroza eta Aurrera.....	31
5. Zehapenaren zenbatekoa zehaztea.....	32
VI. EBATZI DU.....	35

I. AURREKARIAK

1. 2012ko otsailaren 9an Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak, egun Lehiaren Euskal Agintaritzako Ikerketa Zuzendaritzak (LDEZ) jakin zuen

Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legean debekatutako jokabideak gauzatzen omen ari zela Gasteizko hainbat autoeskola¹.

Jokabideok honetan zetzaten: aipatutako udalerriko hainbat autoeskolak prezio berdinak ezarri zituen, edo oso antzekoak, B. mailako gida baimenak lortzera bideratutako zerbitzuetan.

2. 2012ko irailaren 10ean, Ikerketa Zuzendaritzak sumatutako jokabideari buruzko ohar labur deskriptibo bat bidali zion Estatuko Lehiaren Batzordeari (ELB), dokumentazio lagungarria barne, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsan dituzten eskumenak koordinatzeko 1/2002 Legearen 2.1 artikulua ezarritakoaren arabera, eskumena LEAri zegokiola adieraziz².

2012ko irailaren 18an, ELBk ofizio bat bidali zuen, jasotako proposamenaren arabera, bere burua eskuduntzat jotzen zuena, auziaren erabakimena LEAri emateko.

3. 2012ko urriaren 5ean –gertatukoaren gaineko ezagutza handitzeko eta Lehiaren Defentsarako Legea urratu izanaren zantzuak ikertzeko (137 eta 138 arteko folioak)–, Ikerketako zuzendariak Ebazpen bat eman zuen, isil-gordeko informazio-prozesua abiarazten zuena, Lehiaren Defentsarako Legearen 49.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki.

4. 2013ko azaroaren 4an, Ikerketako zuzendariak, Lehiaren Defentsarako Legearen 49.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, zehapen-espeditzea irekitzea erabaki zuen, Lehiaren Defentsarako Legearen 1. eta/edo 3. artikulua urratu izanaren arrazoizko zantzuak hautemanda.

Aipatutako zantzuen arabera, aurrerago zerrendatutako autoeskolek prezio berdinak edo oso antzekoak aplikatu zituzten 2010, 2011, 2012 eta 2013 urteetan B. mailako gida baimena lortzeko zerbitzuan.

Honako hauen aurka abiarazi zen prozedura:

- AUTOESCUELA MENDIZORROZA SC (aurrerantzean, MENDIZORROZA).
- JOSÉ LUIS AÑUA AJURIA (AUTOESCUELA AÑUA) (aurrerantzean, AÑUA).
- AUTOESCUELA SALAZAR SL (AUTOESCUELA CLAXON) (aurrerantzean, CLAXON).
- J.A.S.A. (AUTOESCUELA ARANBIZKARRA) (aurrerantzean, ARANBIZKARRA).
- AUTOESCUELA MENDIKO SC (aurrerantzean, MENDIKO).

¹ 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Defentsari buruzkoa (EAO, 159. zk., 2007ko uztailaren 4koa).

² 1/2002 Legea, otsailaren 21ekoa, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsan dituzten eskumenak koordinatzekoa (EAO, 46 zk., 2002 otsailak 22).

- AUTOESCUELA ÁLAVA SL (aurrerantzean, ÁLAVA).
- AUTOESCUELA GASTEIZ SC (aurrerantzean, GASTEIZ).
- AUTOESCUELA OLARIZU SL (aurrerantzean, OLARIZU).
- AUTOESCUELA ZADORRA SL (aurrerantzean, ZADORRA).
- AUTOESCUELA ARCINIEGA SL (aurrerantzean, ARCINIEGA).
- D.C.S. (AUTOESCUELA LECETA) (aurrerantzean, LECETA).
- AUTOESCUELA GORBEA S.KOOP. (aurrerantzean, GORBEA).
- MIGUEL ÁNGEL ZALDIVAR ORTIZ DE LATIERRO (AUTOESCUELA ZALDIVAR) (aurrerantzean, ZALDIVAR).
- RUBÉN LÓPEZ TATO (AUTOESCUELA AURRERA) (aurrerantzean, AURRERA).
- AUTOESCUELA SAN PRUDENCIO SL (aurrerantzean, SAN PRUDENCIO).
- SUM SLL (AUTOESCUELA KM0) (aurrerantzean, KM0).

Ebazpen horren babesean, aipatutako espedientearen instruktorea eta idazkaria izendatu ziren (903 eta 906 arteko folioak).

Halaber, ebazpen horrek espedientean interesa duten alderdi gisa izendatu zituen espedientea irekitako pertsona fisiko edo juridikoak, hala nola Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala (MLBN).

5. 2013ko abenduaren 17an, espediente honen instruktoreak informazioa emateko probidentzia-eskaera helarazi zien espedientepeko pertsoneri (1031 eta 1051 arteko folioak). Zehazki, fakturazioari, langileei, ibilgailuei eta lokalei buruzko informazioa eskatu zitzairen.

Eskatutako informazioa 2014ko urtarrilaren 2aren eta otsailaren 13aren artean jaso zuen (1122 eta 1237 arteko folioak).

2013ko abenduaren 27an, espediente honen instruktoreak informazioa emateko probidentzia-eskaera helarazi zion Arabako Trafikoko Eskualde-buruzagitzari (1031 eta 1051 arteko folioak). Zehazki, guztira emandako baimen-kopurua eta gidari berriei emandako baimen-kopurua zehaztea eskatu zitzairen, baimen motaren, Gasteizen dituzten autoeskola eta egoitza guztien eta 2009, 2010, 2011 eta 2012 urteen arabera banakatuta.

Eskatutako informazioa 2014ko urtarrilaren 31n, otsailaren 5ean eta maiatzaren 22an jaso zen (1122 eta 1237 arteko folioak, eta 1424 eta 1432 artekoak), buruzagitzako datuak biltegitratzeko zerbitzuaren eragingarritasunaren babesean.

2014ko otsailaren 18an, espediente horren instruktoreak informazioa emateko probidentzia-eskaera helarazi zien GASTEIZ, LECETA, SAN PRUDENCIO eta ZADORRA autoeskolei (1242 eta 1241 arteko folioak). Zehazki, fakturazioari, langileei, ibilgailuei eta lokalei buruzko informazioa eskatu zitzairen, 2013ko abenduaren 17ko eskakizunari emandako erantzunek gabetasunak zituztenez.

Aipatutako informazioa 2014ko martxoaren 5etik 13ra bitartean jaso zen (1122 eta 1237 arteko folioak, eta 1424 eta 1432 artekoak).

2014ko martxoaren 24an, ARCINIEGA enpresak alegazioak aurkeztu zituen, bere aurkako espedientea artxibatzeko eskaeraz gain, izen-abizenak eta helbideak adierazitako sei lekukoren lekuko-froga proposatzen zuena.

Aipatutako froga gauzatzearen egokitasuna egitateak zehazteko baldintzen agiriari aurkeztutako alegazioak eta espedientean interesa dutenek, hala dagokienean, aurkeztutako froga-proposamenak jaso ondoren ebatziko da.

2014ko maiatzaren 16an, espediente horren instruktoreak informazioa emateko probidentzia-eskaera helarazi zien espedientea irekitakoei, fakturei eta negozio-bolumenari buruz (1385 eta 1389 arteko folioak).

Eskatutako informazioa 2014ko maiatzaren 23aren eta ekainaren 16aren artean jaso zuen (1443 eta 13428 arteko folioak).

2014ko maiatzaren 30ean, espediente horren instruktoreak informazioa eskatzeko probidentzia-eskaera helarazi zion Arabako Trafikoko Eskualde-buruzagitzari (1433 eta 1434 arteko folioak), Gasteizko autoeskoletan 2013 urtean zirkulazio baimena lortutako kopuruari buruz, baimen motaren arabera banakatuta.

Eskatutako informazioa 2014ko ekainaren 12an jaso zuen (12921 eta 12922 arteko folioak).

6. 2014ko azaroaren 7an, espedientearen instruktoreak zegokion egitateak zehazteko baldintzen agiria idatzi zuen, Lehiaren Defentsarako Legearen 50.3 artikuluan ezarritakoaren arabera (13431 eta 13451 arteko folioak). Baldintzen agiri horretan jasotakoaren arabera, jarraian zehaztutako enpresek Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikulua urratu dute.

- ÁLAVA, AÑUA, CLAXON, GASTEIZ, MENDIKO eta OLARIZU 2010eko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte modu bidegabean jardun dira.
- ARCINIEGA, SAN PRUDENCIO eta KM0 2010eko uztailaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte modu bidegabean jardun dira.
- ZALDIVAR eta MENDIZORROZA 2011ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte modu bidegabean jardun dira.
- AURRERA 2012ko irailaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte modu bidegabean jardun da.

Halaber, egiaztatu gabekotzat jo da honako enpresa hauek lehiaren kontra jardun izana:

- ARANBIZKARRA, GORBEA, LECETA eta ZADORRA.

Baldintzen-agiri hori behar bezala jakinarazi zitzaien interesdunei 2014ko azaroaren 10ean. Hamabost egun baliioduneko epea eman zitzaien baldintzen-

agiriari erantzuteko eta, hala nahi izanez gero, egoki iritzitako frogak proposatzeko.

Interesdunek 2014ko azaroaren 28aren eta abenduaren 11ren artean aurkeztu zituzten alegazioak. Alegazio horietan, KM0, ÁLAVA, ZALDIVAR, ARCINIEGA, GASTEIZ, SAN PRUDENCIO eta AÑUA autoeskolek hainbat froga gauzatzea eskatu zuten.

7. 2015eko urtarrilaren 8an, espedientearen instruktoreak probidentzia bat eman zuen, KM0, GASTEIZ eta SAN PRUDENCIO autoeskolek eskatutako agiri-frogak gauzatzea eta gainerakoak ezestea onartzen zuena.

Horrenbestez, espedientearen jasota geratu da agiri-froga gisa aurkeztutako dokumentazioa.

8. 2015eko urtarrilaren 20an, espedientearen instruktoreak instrukzio-fasea amaitzeko probidentzia eman zuen (14171 eta 14173 arteko folioak), ebazpen-proposamena idazteko, Lehiaren Defentsarako Erregelamenduen 33. artikuluan ezarritakoaren arabera³.

Probidentzia hori behar bezala jakinarazi zitzaizen interesdunei 2015eko urtarrilaren 22an.

9. 2015eko martxoaren 10ean, espedientearen instruktoreak ebazpen-proposamena eman zuen (14236 eta 14300 arteko folioak), interesdunei behar bezala jakinarazi ziena. Hamabost egun baliouduneko epea eman zien egoki iritzitako alegazioak aurkezteko, probak gauzatzea eta jarduera gehigarriak eskatzeko Lehiaren Euskal Kontseiluaren (LEK) aurrean eta, hala behar izanez gero, ikustaldia gauzatzeko.

Ebazpen-proposamen horretan, honakoa proposatu zion instruktoreak LEKari:

a) Arau-haustea egon dela adieraz dezala, Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1.a) artikulua debekatutako jokabideak gauzatu direlako; espedientepeko autoeskolek prezio berdinak, edo bat zetozenak, aplikatu zituzten B. mailako gida baimena lortzera bideratutako eskola praktikoetan 2010 eta 2013 artean.

b) Debeekatutako jokabidearen erantzule izenda ditzala honakoak:

- ÁLAVA, 2010eko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte modu bidegabean jarduteagatik.

- AÑUA, 2010eko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte modu bidegabean jarduteagatik.

- CLAXON, 2010eko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte modu bidegabean jarduteagatik.

³ 261/2008 Errege Dekretua, otsailaren 22koa, Lehiaren Defentsarako Erregelamendua onartzekoa (EAO, 50 zk., 2008ko otsailak 27).

- GASTEIZ, 2010eko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte modu bidegabean jarduteagatik.
- MENDIKO, 2010eko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte modu bidegabean jarduteagatik.
- OLARIZU, 2010eko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte modu bidegabean jarduteagatik.
- ARCINIEGA, 2010eko uztailaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte modu bidegabean jarduteagatik.
- KM0, 2010eko uztailaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte modu bidegabean jarduteagatik.
- SAN PRUDENCIO, 2010eko uztailaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte modu bidegabean jarduteagatik.
- ZALDIVAR, 2011ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte modu bidegabean jarduteagatik.
- MENDIZORROZA, 2011ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte modu bidegabean jarduteagatik.
- AURRERA, 2012ko irailaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte modu bidegabean jarduteagatik.

c) Inguruabar aringarri iriztea honakoei:

- Jokabide debekatua ez dela autoeskolek eskainitako baimen mota guztietara hedatu, B. mailakoetara baizik.
- Jokabide debekatua ez dela bezeroek ordaindu beharreko kontzeptu guztietara hedatu, eskola praktikoetara baizik.

d) Lehiaren defentsarako legearen 53. artikuluko gainerako adierazpenak onar ditzala.

Interesdunek 2015eko martxoaren 31ren eta apirilaren 13aren artean aurkeztu zituzten alegazioak.

Alegazio horietan, AÑUA eta KM0 autoeskolek LEKaren aurreko ikustaldia eskatu zuten.

Halaber, AÑUA, KM0 eta ZALDIVAR autoeskolek LEKaren aurrean frogak eta jarduera osagarriak gauzatzea eskatu zuten.

10. 2015eko apirilaren 23an, espedientearen instruktoreak administrazio-espedientea igorri zion LEKari, zegokion ebazpen-proposamena nahiz AÑUA, ARCINIEGA, AURRERA, CLAXON, KM0, MENDIKO, MENDIZORROZA, OLARIZU eta ZALDIVAR autoeskolek ebazpen-proposamenari aurkeztutako alegazioak jasota zeuden txostena atxikita, nahiz eta azken horiek ez duten inola ere indargabetzen aipatutako proposamena, eta, horrenbestez, ebazpen-proposamenean jasotako guztia berretsi zuen.

11. LEKak, 2015eko apirilaren 29ko bilkuran, espediente honetaz eztabaidatu eta epaitza eman zuen.

II. ENPRESAK

12. AUTOESCUELA MENDIZORROZA SC (IFZ: G01179415), merkataritza-izena AUTOESCUELA MENDIZORROZA eta helbidea Herrandarren kalea 46, Gasteiz (PK: 01003) dituen. Egoitza bakar bat du (553 folioa).

13. JOSÉ LUIS AÑUA AJURIA (IFZ: 16193783N), merkataritza-izena AUTOESCUELA AÑUA eta helbidea Posta kalea 18, 1. solairua, Gasteiz (PK: 01001) dituen. Bost egoitza ditu Gasteizen (Posta 18, Villarrealako atea 36, Tomas Zumarraga Dohatsua 78, Izardui komandantea 9 eta Blas Otero 11). 2011 urteaz geroztik, Posta kaleko egoitza da urte osoan irekita dagoen bakarra. Gainerakoek egunean 5 orduz irekitzen dute udan (464 eta 1138 folioak).

14. AUTOESCUELA SALAZAR SL (IFZ: B01032598), merkataritza-izena AUTOESCUELA CLAXON eta helbidea Bilbo plaza 2, Gasteiz (PK: 01002) dituen. 5 egoitza ditu Gasteizen (Bilbo plaza 2, Florida 45, Iruñea 3, Forondako atea 40 eta Aitzgorri 30). Aitzgorri kaleko egoitza prestakuntza-ikastaroetara bideratzen da soilik (722 orria).

15. J.A.S.A. (IFZ: XXXXXXXXX), merkataritza-izena AUTOESCUELA ARANBIZKARRA eta helbidea Valladolid hiribidea 16, Gasteiz (PK: 01002) dituen. Egoitza bakar bat du (515 folioa).

16. AUTOESCUELA MENDIKO SC (IFZ: J01100106), merkataritza-izena AUTOESCUELA MENDIKO eta helbidea Paula Montal 16, Gasteiz (PK: 01010) dituen. Egoitza bakarra du. Beste egoitza bat zuen, Herrandarren kalea 2 helbidean, baina 2012ko abuztuan itxi zuen (592 folioa).

17. AUTOESCUELA ÁLAVA SL (IFZ: B01013275), merkataritza-izena AUTOESCUELA ÁLAVA eta helbidea Gasteiz hiribidea 7, Gasteiz (PK: 01008) dituen. Bi egoitza ditu Gasteizen (Gasteiz hiribidea 7 eta Donostia 68), bat Agurainen (Foruak 10) (822 folioa).

18. AUTOESCUELA GASTEIZ SC (IFZ: G01057652), merkataritza-izena AUTOESCUELA MENDIKO eta helbidea Sutaustegi zaharra 7, Gasteiz (PK: 01003) dituen. Hiru egoitza ditu Gasteizen (Sutaustegi zaharra 7, Gasteiz hiribidea 57 eta Zabalzana hiribidea 37) (631 folioa).

19. AUTOESCUELA OLARIZU SL (IFZ: B01055441), merkataritza-izena AUTOESCUELA OLARIZU eta helbidea Txirula 3, Gasteiz (PK: 01006) dituen. Egoitza bakar bat du (503 folioa).

20. AUTOESCUELA ZADORRA SL (IFZ: B01198233), merkataritza-izena AUTOESCUELA ZADORRA eta helbidea Tomás Alfaro margolaria 13, Gasteiz (PK: 01008) dituen. Egoitza bakar bat du (365 folioa).

21. AUTOESCUELA ARCINIEGA SL (IFZ: B01287135), merkataritza-izena AUTOESCUELA ARCINIEGA eta helbidea Pepe Ubis plaza 15, Gasteiz (PK: 01003) dituen. Egoitza bakar bat du (487 folioa).

22. D.C.S. (IFZ: XXXXXXXXX), merkataritza-izena AUTOESCUELA LECETA eta helbidea Sebastián Fernández de Leceta 5, Gasteiz (PK: 01009) dituen. Egoitza bakar bat du (831 folioa).

23. AUTOESCUELA GORBEA S.KOOP. (IFZ: F01023357), merkataritza-izena AUTOESCUELA GORBEA eta helbidea Gorbeia 37, Gasteiz (PK: 01012) dituen. Bi egoitza ditu Gasteizen (Gorbeia 37 eta Ama Vedruna 1) (747 folioa).

24. MIGUEL ÁNGEL ZALDIVAR ORTIZ DE LATIERRO (IFZ: 16235247F), merkataritza-izena AUTOESCUELA ZALDIVAR eta helbidea Ramiro Maeztu 17, Gasteiz (PK: 01008) dituen. Egoitza bakar bat du (771 eta 772 folioak).

25. RUBÉN LÓPEZ TATO (IFZ: 18597044A), merkataritza-izena AUTOESCUELA AURRERA eta helbidea Herrandarren kalea 2, Gasteiz (PK: 01004) dituen. Egoitza bakar bat du (445 folioa).

26. AUTOESCUELA SAN PRUDENCIO SC (IFZ: B01033935), merkataritza-izena AUTOESCUELA SAN PRUDENCIO eta helbidea Herrandarren kalea 33, Gasteiz (PK: 01002) dituen. Bi egoitza ditu (Herrandarrak 33 eta 7) egoitza bakar bat balira bezala erabiltzen direnak (886 eta 887 folioak).

27. SUM SLL (IFZ: B01301837), merkataritza-izena AUTOESCUELA KM0 eta helbidea Gaztelako atea 34, Gasteiz (PK: 01007) dituen. Bi egoitza ditu (Gaztelako atea 34 eta Dublin 2). Beste egoitza bat zuen, Ibaibarriaga koronela 10 helbidean, baina 2011n itxi zuen (858 eta 872 folioak).

III. MERKATU ADIERAZGARRIAREN ANALISIA.

1. Merkatu adierazgarriaren definizioa.

28. Dagokion **produktu-merkatua** B. mailako gida baimena lortzeko irakaskuntzarena da⁴. Produktu bakana da, ezin baita ordeztu bestelako gida baimen moten bidez⁵.

29. Merkatu geografikoak barne hartzen du eragindako operadoreek diharduten eremua, lehia-baldintzak aski homogeneoak direna, baina aski desberdinak ingurukoaren aldean⁶.

B. mailako gida baimena lortzeko irakaskuntzaren merkatuaren muga geografikoak zehazteko garaian, funtsezkoa da ikaslearen ohiko etxebizitzarekiko gertutasunaren faktorea, faktore bereizgarria, kontsumitzaileek oso kontuan hartzen dutena.

Gasteiz hiria merkatu aski handia da, eta askotarikoa, aldiz, B. mailako gida baimena lortzeko bertako irakaskuntza-zerbitzuen eskaintza; hainbeste, balizko bezeroek ez baitute hiritik kanpoko autoeskoletara jo behar. Hiritik kanpoko autoeskola batera joateak hainbat eragozpen dakartza, joan-etorrien kostua eta

⁴ Ikus Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren Ebazpenak: 391/96 Espedientea, 1997ko ekainaren 5ekoa, Linareseko autoeskolena; 421/97 Espedientea, 1998ko abenduaren 18koa, Collado-Villalbako autoeskolena; 461/99 Espedientea, 2000ko martxoaren 9koa, Alcaláko autoeskolena; 462/99 Espedientea, 2000ko maiatzaren 23koa, Tenerifeko autoeskolena; eta 582/2004 Espedientea, 2005eko otsailaren 16koa, Extremadurako autoeskolena. Ikus, halaber, Lehiaren Defentsarako Kataluniako Auzitegiarenak: 3/03 Espedientea, 2004ko uztailaren 21ekoa, Sabadelleko autoeskolena; 5/04 Espedientea, 2005eko ekainaren 17koa, Santa Coloma de Gramaneteko autoeskolena; 6/04 Espedientea, 2005eko ekainaren 23koa, Badalonako autoeskolena; eta 8/04 Espedientea, 2005eko azaroaren 23koa, L'Hospitalet de Llobregateko autoeskolena. Ikus, halaber, Lehiaren Defentsarako Galiziako Auzitegiarena: S 1/2007 Espedientea, 2007ko abenduaren 27koa, Vigoko autoeskolena. Ikus, azkenik, Lehiaren Defentsarako Aragoiko Auzitegiarena: 3/2009 Espedientea, 2013ko urriaren 8koa, Zaragozako autoeskolena.

⁵ 818/2009 Errege Dekretuak, maiatzaren 8koak (EAO, 138 zk., 2009ko ekainak 8), Gidarien Erregelamendu Orokorra arautzen duenak, aipatutako baimenak honako ibilgailu hauek gidatu ahal izatea dakar: 3.500 kg baino gehiagoko baimendutako gehieneko masa ez duten ibilgailuak, gehienez zortzi bidaiari, gidariak gain, garraiatzeko diseinatu eta eraiki direnak. Ibilgailu horiek atoa eraman ahalko dute, 750 kg baino gehiagoko baimendutako gehieneko masa ez badu. Elkarri lotutako ibilgailuen multzoa, B. mailako gida baimenarekin gida daitekeen trakzio-ibilgailu eta 750 kg baino gehiagoko baimendutako gehieneko masa ez duen atoi banaz osatua, baldin eta multzoak 4.250 kg baino gehiagoko baimendutako gehieneko masa ez badu, ibilgailu horien berariazko onarpen-arauek ezarritako xedapenak bazter utzi gabe. Triziklo eta kuatriziklo motordunak. Gida baimena lortzeko gutxieneko adina hemezortzi urtekoa da. Hala ere, hogeita bat urte bete arte ez da baimenik emango 15 kW baino gehiagoko potentziako triziklo motordunak gidatzeko.

⁶ *Jakinarazpena, lehiaren gaineko Europar Batasuneko araudia ezartzeko erreferentziazko merkatua zehazteari buruzkoa*, 8. paragrafoa (97/C 372/03). Aldizkari ofiziala, C-372, 1997ko abenduak 9.

iraupena kasu; kontuan hartu behar da Gasteiztik udalerrri mugakideetara dagoen distantzia. Horrenbestez, merkatu geografikoa toki mailakoa da; alegia, Gasteizera mugatua.

30. Hala bada, merkatu adierazgarria Gasteizen B. mailako gida baimena lortzeko irakaskuntzarena da.

2. Zerbitzua desberdintzeko faktoreak

31. Hainbat faktore dago autoeskolek lehiakideengandik desberdintzeko balia ditzaketenak:

- Prezioa. Lehiakideek baino zerbitzu merkeagoa eskaintzeari desberdintzeko estrategia iritzi ahal zaio, baldin eta kontsumitzailearen iritzian zerbitzuaren kalitatean alderik ez badago, are gehiago egoera ekonomikoa bere onenean ez dagoen honetan.
- Eskainitako zerbitzuaren kalitatea. Irakaskuntzari berari zein ekipo informatikoei edo ibilgailuei dagokiona edota biei dagokiena. Gainera, zerbitzuaren truke ordaintzeko prestasuna, eta, ondorioz, prezioa, kalitateak baldintza dezake.
- Kokapena. Gertutasun geografikoa ere faktore bereizgarria da, kontsumitzaileek kontuan har dezaketena autoeskola bat edo bestea aukeratzeko garaian⁷.

3. Tarifaren osagaiak

32. B. mailako baimena lortzeko tarifaren guztizkoa honako kontzeptu hauetan banakatu ohi da:

- Matrikula eta ikastaro teorikoa: matrikulatzea eta espedientea izapidetzea, ikastaro teorikoa eta ikasmateriala barne hartzen ditu.
- Eskola praktikoa: irakaskuntza praktikoaren guztizko prezioa ikasleak azterketara aurkezteko behar duen eskola kopuruaren araberakoa da. Eskola-orduen iraupena autoeskola batetik bestera aldatzen da (Gasteizko autoeskoletan 50 eta 60 minutu artean irauten dute).
- Azterketa-eskubideak: oro har, eskola praktikokoaren prezio berdina dute.

⁷ Kontuan har ditzaketen beste faktore batzuk: Horietan nabarmenetako bat da ordutegi-malgutasuna. Autoeskolek zerbitzuaren helburuko pertsonetara egokitutako irekiera-ordutegiak eskaini ditzakete. Hala, ordutegi-malgutasuna gero eta gehiago hartzen dute kontuan kontsumitzaileek zerbitzu jakin bat aukeratzeko garaian. Horrek barne hartuko luke prestakuntza teorikoa online (Internet bidez) egin ahal izateko aukera eskaintzea.

- Trafikoko Eskualde-buruzagitzaren tasak: urtean kopuru finko bat ordaindu behar dute autoeskolek. Ikasleak, azterketa-deialdi guztiak agortuta, dokumentazioa berritu behar duenean, autoeskolak tasa gehigarri bat ezarri ohi du «berritzea» dela-eta, eta horri trafikoko tasak gehitu beharko zaizkio.

4. Eskariaren elastikotasuna


33. B. mailako gida baimenaren eskaria oso ez-elastikoa da. Alegia, eskariaren merkatu-erantzun orokorra ez da ia aldatzen zerbitzuaren prezioaren aldaketen aurrean, B. mailako gida baimenak ez duelako egiazko ordezkorik merkatuan.

Hori bai, norbanakoak sentiberak dira autoeskolen prezio-desberdintasunen aurrean. Alegia, autoeskola batek prezioa jaitsiko balu, bere eskariak gora egingo luke lehiakideen merkatu-kuotaren kontura. Merkatuaren funtzionamendu normalaren ondorio litzateke hori, eskaintzaile ororen xedea modu eraginkorrean lehiatuz etekinak eta/edo merkatu-kuota handitzea denez, eta, horrenbestez, lehiakideen bizkar kuota areagotzea.

Kontrara, eskariak autoeskolek eskainitako zerbitzuen aurrean duen indar eskasaren seinale izan ohi da prezioen gorakada kolektiboa. Autoeskolek prezioa handitzea adostearen aurrean eskariak ez duenez erreakzio-ahalmenik, ez dagoenez ordezko zerbitzurik, prezio adostua biziki kaltegarria da kontsumitzailearentzat.

5. Gasteizko autoeskolen merkatua.

34. Gasteizko autoeskolen merkatu-kuotak kalkulatu dira, Arabako Trafiko Buruzagitzak B. mailako gida baimena dutenen gainean emandako datuen arabera. Ondoko grafikoan jaso dira.



Iturria: Guk geuk egina, Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta. Arabako Trafiko Buruzagitza

Gasteizen, aztertutako aldian, CLAXON da autoeskola liderra; % 20,6 merkatu-kuota 2013an. Bigarren kuota handiena AÑUArena da, % 13koa 2013an. Ondoren, KM0 dago, % 8,8ko kuota urte horretan bertan.

Merkatu-kuoten aldakortasun eskasa, autoeskolek aplikatutako prezioen arteko berdintasunarekin batera, zehaztutako merkatuan lehia ezdeusa edo hutsala denaren seinale da.

IV. EGITATE FROGATUAK

35. Ebazpen-proposamenarekin bat etorritz, frogatutzat jo dira honako egitate hauek.

Egitateok B. mailako gida baimena lortzeko eskola praktikoaren tarifei buruzkoak dira. Horiek guztiak BEZ gabe adierazi dira.

36. Autoeskolek emandako informazioaren eta fakturen arabera, B. mailako gida baimena lortzeko eskola praktikoetan aplikatutako prezioak, eurotan, honako hauek dira:

ESKOLA PRAKTIKOAREN PREZIOA						
	2010		2011	2012		2013
	1. aldia	2. aldia	3. aldia	4. aldia	5. aldia	6. aldia
ARABA	35,00	37,00	37,00	39,50	39,59	39,59
AÑUA	35,00	37,00	37,00	39,50	39,50	39,50
ARANBIZKARRA	35,00	35,00	37,00	37,00	39,50	39,00
ARCINIEGA	37,00	37,00	37,00	39,50	39,50	39,00
AURRERA	-	-	-	-	39,50	39,50
CLAXON	35,00	37,00	37,00	39,50	39,50	39,50
GASTEIZ	34,00	37,00	37,00	39,50	39,50	39,50
GORBEA	34,48	34,41	37,00	37,00	39,50	39,50
KM0	37,64	37,00	38,24	39,50	39,50	39,50
LECETA	35,60	35,00	35,00	37,00	39,50	37,00
MENDIKO	35,00	37,00	37,00	39,50	39,50	39,50
MENDIZORROZA	33,00	33,00	37,00	39,50	39,25	39,50
OLARIZU	34,00	37,00	37,00	39,50	39,50	39,50
SAN PRUDENCIO		37,00	37,00	39,50	38,84	38,84
ZADORRA	30,00	37,00	37,00	37,00	38,00	37,00
ZALDIVAR	34,00	34,00	37,00	39,50	39,50	39,50

Horrenbestez, erreferentziazko prezioa, edota, bestela esanda, autoeskolek nagusiki aplikatutako prezioa, honakoa da:

ESKOLA PRAKTIKOAREN ERREFERENTZIAZKO PREZIOA					
2010 1. aldia	2010 2. aldia	2011 3. aldia	2012 4. aldia	2012 5. aldia	2013 6. aldia

35,00	37,00	37,00	39,50	39,50	39,50
-------	-------	-------	-------	-------	-------

37. B. mailako gida baimenari loturiko zerbitzuen kontsumitzaile arrunta pertsona gaztea da (18 eta 24 urte artekoak). Biztanle-segmentu hori, gehienbat, ikaslez osatuta dago, lan-errentarik ez dutenak, eta, ondorioz, gida baimena finantzatzeko, hein handi batean, familiaren laguntza behar dutenak. Horrela, eta gida baimenak errenta-segmentu guztietan, baxuenetan barne, zenbateko garrantzia duen jakinik, prezioarekiko sentikortasuna handia izatea espero da; prezioan % 5eko edo gehiagoko aldea egoteak kontsumitzaileen autoeskola aukeratzeko erabakia baldintzatu dezake.

Horrenbestez, tarifak antz-antzekoak direla jotzen da, berdin-berdinak badira edo **erreferentziako balioaren % 4ko tartean** badaude.

Ondoko koadroan eskola praktikoaren erreferentziako prezioa eta autoeskolek aplikatutakoa bat datozen kasuak ageri dira, 2010, 2011, 2012 eta 2013 urteei dagokienez.

X erabili dugu erreferentziako prezioa eta aplikatutakoa berdin-berdinak direla adierazteko.

Adierazitako kopuruak prezioei dagozkie, erreferentziako prezioaren % 4ko tartean daudenei, antz-antzekoei, beraz.

ESKOLA PRAKTIKOAN ERREFERENTZIAZKO PREZIOA APLIKATZEN DEN DATA(*)						
	2010		2011	2012		2013
AUTOESKOLA	urtarrilaren 1etik ekainaren 3era	uztailaren 1etik abenduaren 31ra		urtarrilaren 1etik abuztuaren 31ra	irailak 1 abenduak 31	
ERREFERENTZIAKO PREZIOA	35	37	37	39,5	39,5	39,5
ARABA	X	X	X	X	X	X
AÑUA	X	X	X	X	X	X
ARANBIZKARRA	X	EZ	X	EZ	X	39
ARCINIEGA	EZ	X	X	X	X	39
AURRERA	-	-	-	-	X	X
CLAXON	X	X	X	X	X	X
GASTEIZ	X/34	X	X	X	X	X
GORBEA	34,50	EZ	X	EZ	X	X
KM 0	EZ	X	38,24	X	X	X
LECETA	35,6	EZ	EZ	EZ	X	EZ
MENDIKO	X	X	X	X/38	X	X
MENDIZORROZA	EZ	EZ	X	X	39,25	X
OLARIZU	34 / 35	X	X	X	X	X
SAN PRUDENCIO	-	X	X	X	38,84	38,84
ZADORRA	EZ	X	X	EZ	38	EZ
ZALDIVAR	34		X	X	X	X

ERREFERENTZIAKO PREZIOA +% 4	36,40	38,48	38,48	41,08	41,08	41,08
ERREFERENTZIAKO PREZIOA - % 4	33,60	35,52	35,52	37,92	37,92	37,92

(*) Bi datu adierazi dira bigarren tarifa aplikatuena ere % 4aren tartean dagoen kasuetan.

EZ dioten laukiek erreferentziazkoaz bestelako prezio bat aplikatu dela adierazten dute.

– ageri den laukiek autoeskola jarduten hasi gabe zegoela adierazten dute.

Eskola praktikoen prezioak lerrokatuta daudela sumatu da, batez ere 2012an, autoeskola guztiek aplikatu baitzuten prezio berdina edo ia berdina.

38. Autoeskolek ez dute aplikatu taulan jasotako tarifa kontratuen % 100ean, baina, hori bai, jarraian jasotakoaren arabera, tarifa nagusizat jo daiteke, gainerakoak noizbehinkako iritzita.

2010eko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era (lehen aldia), jarraian zerrendatutako autoeskolek **35 euroko tarifa** aplikatu zuten.

- ÁLAVA, kontratuen % 95,12an.
- AÑUA, kontratuen % 97,90ean.
- ARANBIZKARRA, kontratuen % 100ean.
- CLAXON, kontratuen % 86,82an.
- GASTEIZ, kontratuen % 100ean.
- MENDIKO, kontratuen % 86,67an.

Aldi horretan bertan eta kontzeptu beraren truke, zerrendatutako autoeskolek lehenagokoaren \pm % 4ko tarifak aplikatu zituzten:

- GORBEA, 34,5 € (-0,50 €), kasuen % 100ean.
- LECETA, 35,6 € (+0,60 €), kasuen % 100ean.
- ZALDIVAR, 34 € (-1 €), kasuen % 100ean.
- OLARIZU, 34 € (-1 €), kasuen % 98,10ean.

2010eko uztailaren 1etik abenduaren 31ra (BEZa % 16tik % 18ra igo zen data horretan, eta bigarren aldia deitu diogu), **37 euroko** tarifa aplikatu zen kasu hauetan:

- ÁLAVA, kontratuen % 95,89an.
- AÑUA, kontratuen % 95,38an.
- ARCINIEGA, kontratuen % 100ean.
- CLAXON, kontratuen % 92,08an.
- GASTEIZ, kontratuen % 82,86an.
- KM0, kontratuen % 100ean
- MENDIKO, kontratuen % 69,14an.
- OLARIZU, kontratuen % 100ean.
- SAN PRUDENCIO, kontratuen % 100ean.

- ZADORRA, kontratuaren % 78,13an.

2011 urtean (hirugarren aldia), autoeskoletan 37 euroko tarifa aplikatzen jarraitu zuten kasu hauetan:

- ÁLAVA, kontratuaren % 100ean.
- AÑUA, kontratuaren % 100ean.
- ARANBIZKARRA, kontratuaren % 98,96an.
- ARCINIEGA, kontratuaren % 100ean.
- CLAXON, kontratuaren % 99,76an.
- GASTEIZ, kontratuaren % 100ean.
- GORBEA, kontratuaren % 96an.
- MENDIKO, kontratuaren % 93,88an.
- MENDIZORROZA, kontratuaren % 97,80an.
- OLARIZU, kontratuaren % 99,34an.
- SAN PRUDENCIO, kontratuaren % 100ean.
- ZADORRA, kontratuaren % 89,39an.
- ZALDIVAR, kontratuaren % 100ean.

Aldi horretan bertan, KMO enpresak kontratuaren % 100ean aurrekoaren \pm % 4ko tarifa aplikatu zuen. Zehazki, aipatutako autoeskoletan 38,24 euroko tarifa aplikatu zuen (hau da, +1,24 euroko alde).

2012ko urtarrilaren 1etik abuztuaren 31ra (laugarren aldia), 39,5 euroko tarifa aplikatu zen kasu hauetan:

- ÁLAVA, kontratuaren % 100ean.
- AÑUA, kontratuaren % 82,70ean.
- ARCINIEGA, kontratuaren % 100ean.
- CLAXON, kontratuaren % 68,42an.
- GASTEIZ, kontratuaren % 100ean.
- KMO, kontratuaren % 100ean.
- MENDIKO, kontratuaren % 83,41ean.
- MENDIZORROZA, kontratuaren % 100ean.
- OLARIZU, kontratuaren % 100ean.
- SAN PRUDENCIO, kontratuaren % 100ean.
- ZALDIVAR, kontratuaren % 100ean.

2012ko irailaren 1etik abenduaren 31ra (BEZa % 18tik % 21era igo zen data horretan, eta bosgarren aldia deitu diogu), **39,5 euroko** tarifa aplikatu zen kasu hauetan:

- ÁLAVA, kontratuaren % 100ean.
- AÑUA, kontratuaren % 99,49an.

- ARANBIZKARRA, kontratuen % 83,33an.
- ARCINIEGA, kontratuen % 100ean.
- AURRERA, kontratuen % 100ean⁸
- CLAXON, kontratuen % 100ean.
- GASTEIZ, kontratuen % 100ean.
- GORBEA, kontratuen % 90ean.
- KM0, kontratuen % 100ean.
- LECETA, kontratuen % 76,19an.
- MENDIKO, kontratuen % 90ean.
- OLARIZU, kontratuen % 100ean.
- ZALDIVAR, kontratuen % 100ean.

Data horretan bertan, aurrekoen \pm % 4ko tarifa aplikatu zuten enpresa hauek:

- MENDIZORROZA, 39,25 € (-0,25 €), kontratuen % 100ean.
- SAN PRUDENCIO, 38,84 € (-0,66 €), kontratuen % 100ean.
- ZADORRA, 38 € (-1,50 €), kasuen % 50ean.

2013 urtean (seigarren aldia), 39,5 euroko tarifa aplikatzen jarraitu zuten kasu hauek:

- ÁLAVA, kontratuen % 100ean.
- AÑUA, kontratuen % 93,34an.
- AURRERA, kontratuen % 99,29an.
- CLAXON, kontratuen % 100ean.
- GASTEIZ, kontratuen % 100ean.
- GORBEA, kontratuen % 100ean.
- KM0, kontratuen % 100ean.
- MENDIKO, kontratuen % 100ean.
- MENDIZORROZA, kontratuen % 100ean.
- OLARIZU, kontratuen % 100ean.
- ZALDIVAR, kontratuen % 100ean.


Aldi horretan bertan, aurrekoen \pm % 4ko tarifa aplikatu zuten enpresa hauek:

- ARANBIZKARRA, 39 € (-0,50 €), kontratuen % 100ean.
- ARCINIEGA, 39 € (-0,50 €), kontratuen % 100ean.
- SAN PRUDENCIO, 38,84 € (-0,66 €), kontratuen % 100ean.

39. Eskola praktikoen prezioek bi gorakada izan dituzte aztertutako aldian, espedientepeko autoeskoletan modu parekatuan gertatu direnak. Lehena,

⁸ AURRERA autoeskola 2012ko irailean hasi zen jardunean (445. folioa).

2010eko bigarren sei hilekoan, % 6koa izan da, eta bigarrena, aldiz, 2012an, % 6,76koa.



Aztertutako aldiaren, prezioen sakabanatzea (hau da, prezioen aldagarritasuna autoeskolen artean) honakoa da.

Coeficiente de Variación C.V.	
2010 (IVA 16%)	0,051671476
2010 (IVA 18%)	0,038764097
2011	0,016961916
2012 (IVA 18%)	0,029468093
2012 (IVA 21%)	0,010205733
2013	0,021648361

2012 urtean, laugarren eta bosgarren aldiaren, autoeskolen % 81ek tarifa beretsua aplikatu zuen; 39,5 eta 39,56 euro artekoa. Gainera, autoeskoletan aplikatutako tarifen bitartea 38 eta 39,59 euro artekoa izan zen (1,59 euroko zabalera).

40. Aztertutako autoeskolen kostu-egitura era askotakoa da.

Langile kopuruari dagokionez, LECETAk langile bakarra du; ÁLAVA, ARANBIZKARRA, AURRERA, MENDIKO eta ZADORRA autoeskolek bi langile; MENDIZORROZAK eta OLARIZUK, 3 langile; ARCINIEGAK eta GORBEAK, 4 langile; KM0-k eta SAN PRUDENCIOk, 5 langile; GASTEIZEK, 6 langile; ZALDIVAREK, 8 langile; AÑUAK, 10 langile; eta CLAXONEK, 21 langile.

Ibilgailu kopuruari dagokionez, ÁLAVA, AURRERA, LECETA, MENDIKO eta ZADORRA autoeskolek bi ibilgailu dituzte; ARCINIEGAK eta GASTEIZEK, 3 ibilgailu; ARANBIZKARRA, MENDIZORROZA, OLARIZU, SAN PRUDENCIO eta ZALDIVAR autoeskolek, 4 ibilgailu; GORBEAK, 5; KM0-k, 8 ibilgailu; AÑUAK, 9 ibilgailu; eta CLAXONEK, 12 ibilgailu.

Egoitza kopuruari dagokionez, ARANBIZKARRA, ARCINIEGA, AURRERA, LECETA, OLARIZU eta ZADORRA autoeskolek lokal bana dute, alokairuan; MENDIZORROZAK eta MENDIKOK beren jabetzako lokal bana dute; ZALDIVAREK bi lokal ditu, bata jabetzan eta beste alokairuan; ÁLAVA, GORBEA, KM0 eta SAN PRUDENCIO autoeskolek bina lokal dituzte, alokairuan; GASTEIZEK 3 lokal ditu, guztiak alokairuan; AÑUAK 2 lokal ditu alokairuan, 3 jabetzan; eta CLAXONEK 3 lokal ditu alokairuan, 2 jabetzan.

Egitura horren azterketa proportzionala egiteko asmoz, gida baimena lortu dutenen eta autoeskolako ibilgailu kopuruaren arteko ratioa kalkulatu da, autoeskola bakoitzaren eskari-bolumenaren gutxi gorabeherako irudia eskaintzen duelako.

B. mailako gida baimena dutenen kopurua, ibilgailu kopuruaren arabera				
AUTOESKOLA	2010	2011	2012	2013
ARABA	46,3	39,0	38,0	33,0
AÑUA	23,3	24,8	30,4	28,6
ARCINIEGA	18,0	17,0	16,3	13,3
AURRERA	-	-	10,0	41,0
CLAXON	44,2	48,0	28,8	40,9
GASTEIZ	20,5	57,0	57,0	36,3
KM0	51,0	55,4	25,5	24,3
MENDIKO	20,2	20,8	47,0	20,0
MENDIZORROZA	32,8	30,3	25,0	22,5
OLARIZU	18,8	24,0	17,0	23,3
SAN PRUDENCIO	16,3	16,4	36,3	30,3
ZALDIVAR	31,8	39,3	36,0	43,8

Kostu-aldagaien sakabanatzea nabarmena izan arren, autoeskoklek aplikatutako tarifaren antzekotasuna oso handia da (1443 eta 13426 arteko folioak).

V. ZUZENBIDE OINARRIAK

1. Prozesuko alderdiak

41. LEKak, lehen-lehenik, AÑUAK eta KM0-k egindako ikustaldi-eskaeraren egokitasuna balioetsi behar du.

Lehiaren Defentsarako Erregelamenduaren 19. artikularen arabera, Kontseiluak «ikustaldia noiz egingo den erabaki ahal izango du, interesdunek eskatu ostean edo espedientearen xedea aztertzeke eta epaitzeke egokia iruditzen zaionean».

Ikustaldiaren helburua da aldeek defentsa-eskubidea gauzatzeko aukera izatea, LEKari espediente egoki aztertu eta ebatzi ahal izateko elementuak eskainiz.

LEKak uste du alderdiek izan dutela aukera, zehapen-prozeduran zehar, beren eskubideak defendatzeko behar adina ekintza gauzatzeko, alegazio guztiak eginez, eta zegokion dokumentazioa emanez, hala instrukzioaldian nola ebazpenaldian.

Horregatik guztiagatik LEKak uste du prozeduran kontraesanaren printzipioa errespetatu dela eta ikustaldia ez dela beharrezkoa espediente egoki aztertu eta ebazteko. Beraz, ez da egingo.

42. KM0-k froga bat egitea eskatu du; LEAk eskain dezala Gasteizko autoeskoletan gida baimena lortu dutenen zerrenda, autoeskolok espedientekoak izan ala ez.

LEKaren iritzian, aipatutako informazioa espedientearen jasota dago, autoeskola bakoitzaren merkatu-kuota kalkulatzeko erabili baita. Horrenbestez, LEKak ezetsi egin du eskaera.

43.AÑUAK ekonomialari lekukoaren/perituaren froga gauzatzea eskatu du, enpresak jasaten dituen kostuen eta egitura-zamaren eta epe laburreko bideragarritasunaren (fakturazio-parametroak murriztuz gero) gaineko argibideak eman diezazkion Kontseiluari.

LEKak lekuko-/peritu-froga egitea ezetsi du, enpresak aukera izan duelako, bai espedientearen instrukzioan, baita, batez ere, ebazpen-proposamena egin ondoren ere, enpresak jasaten dituen kostuen eta egitura-zamaren eta epe laburreko bideragarritasunaren gaineko datu esanguratsuak dokumentu bidez aurkezteko. LEKaren iritzian, lekuko-froga ez da beharrezkoa argudioen alderdietako bat bera ere argitzeko.

44.ZALDIVAREk berriz egin du froga gauzatzearen eskaera, lehen ere egitateak zehazteko pleguan egin zuena. Honakoa da:

- Ustezko jokabide debekatuak salatu dituenaren datuak.
- Eskola praktikoaren iraupena eta autoeskoletan aplikatutako prezioarekiko lotura.
- Emandako eskola praktikoaren kalitatea egiaztatzea.
- Prestakuntza teorikoaren kalitatea egiaztatzea.
- Espedientea Gasteizko 20-21 autoeskolen aurkakoa izan beharrez 16 autoeskolen aurkakoa izatearen arrazoiak.
- Eusko Jaurlaritzako Arabako Trafiko-bulegoari alderdi pertsonalen (zuzendaria, irakasleak, etab.) zein materialen (ibilgailuak eta lokalak) gaineko informazioa eskatzea; aztertutako urteetako autoeskolen errolda.
- Eskolako ikasleentako edozeini lekuko-froga egitea eskatzea prezioei, kalitateari, etab., buruz.
- Enpresaren iragarkiek merkatuko preziorik lehiakorrena –alegia, ekonomikoena–, kalitate eta eskolen iraupen berdinarekin, edukitzearen aldarria egiten dutela egiaztatzea.
- Kostuak kalkulatzeko, baina datu fidagarriak, errealak eta ofizialak erabilia.

Horiek guztiak egitea ezetsi zen 2015eko urtarrilaren 8ko probidentzian, bidegabea eta ez premiazkoa iritzita.

LEKa, eskatutako frogaren nolakotasuna aztertu ondoren, bat dator aipatutako probidentziaren balorazioarekin, eta frogok gauzatzea ezetsi du.

45. Honako **espedienteak iraungita behar zukeela** alegatu da, Lehiaren Defentsarako Erregelamenduaren 28.4 artikulua gehienez 12 hilabeteko epea zehazten duelako instrukzioa egiteko.

Lehiaren Defentsarako Legearen 36.1 artikulua ezarritakoaren arabera, zehapen-prozedura amaituko duen ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea hemezortzi hilabetekoa da hasteko erabakitzen den egunetik hasita. Artikulu horretan zehazten da ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea, baina epe hori ez da instrukzio- eta ebazpen-faseetan banatu behar.

Bestalde, Lehiaren Defentsarako Erregelamenduaren 28.4 artikulua arabera, espedientearen instrukzioa egiteko epea hamabi hilabetekoa izango da hasteko erabakitzen den egunetik hasita.

Horren harira, LEKak honakoa adierazi zuen: «Erregelamenduan aurreikusitako epea ez da preklusiboa, ezta iraungipen-sorrarazlea ere, kontzeptu horiek zehapen-prozedura abiarazteko erabakia jakinarazi ondoren hasitako hemezortzi hilabeteko epeari dagozkionez» honetan zetzaten⁹.

Halaber, lehenagoko adierazpen batean, honakoa esan zuen: «prozedura iraungitzeko epe bakarria espedientea abiarazi eta 18 hilabeteren buruan ebazpenik ez ematea da, Lehiaren Defentsarako Legearen 38.1 artikulua ezarritakoaren arabera; izan ere, Lehiaren Defentsarako Erregelamenduaren 28.4 artikulua ezarritako 12 hilabeteko instrukzio-epea auto-ezarritako epea besterik ez da eta ezin daiteke inola ere izan prozedura iraungitzeko kausa, Erregelamendu horren artikulua horretan espresuki jasotakoaren arabera»¹⁰.

Zentzu bereko adierazpena egin zuen Auzitegi Nazionalak: «Horrenbestez, lehiaren defentsarako esparruan, zehapen-prozedura iraungita egongo da 18 hilabete igaro eta espedienteak ebazpenik jaso ez badu. Hori bai: instrukzio-faseak Lehiaren Defentsarako Erregelamenduaren 28.4 artikuluan ezarritako espedienteen instrukzio-epea (12 hilabete) gainditu izanak ez dakar eskatzaileak aldarrikatzen duen prozeduraren iraungipena. Hizpide dugun auzian, iraungipena guztira 18 hilabete igarotzearen mende dago, eta hori berresten du 15/2007 Legearen 38.1 artikulua, espedientea abiarazi denetik zehapen-espedientearen amaierako ebazpena jakinarazi den arte 18 hilabeteko gehieneko epea gainditzean baizik ez baita iraungipena gertatuko. Ikerketa Zuzendaritzak, beraz, erregelamendu-mailako araua urratu du, baina instrukzioaren epean arau-haustea egin izanak ez dakar eskatzaileak nahi

⁹ Ebazpena, 2010eko uztailaren 31koa, S/0120/08 Espedientea, Garraio-bitartekariari buruzkoa; eta Ebazpena, 2011ko ekainaren 24koa, S/0185/09 Espedientea, Jariakinen punpei buruzkoa.

¹⁰ Ebazpena, 2009ko irailaren 24koa, 2805/07 Espedientea, Zamaketarien enpresei buruzkoa.

bezalako ondoriorik; alegia, prozeduraren iraungipena, Lehiaren Defentsarako Legeak ez baitu horrelakorik jasotzen»¹¹.

Horrenbestez, LEKak espedientearen iraungipenari buruzko alegazioa ezetsi du.

2. Jokabideen sailkapena. Tipikotasuna eta zuzenbide- kontrakotasuna.

46.Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1. artikulua ezarritakoaren arabera, «debekatuta dago merkatu nazional osoaren edo zati baten lehia galarazteko, murrizteko edo faltsutzeko edo hori guztia egin dezakeen akordio, erabaki edo talde-gomendio oro edo hitzartutako edo aldi berean nahita eginiko jardun oro, eta bereziki prezioak zuzenean edo zeharka edo merkataritzako edo zerbitzuko bestelako baldintzak jartzean datzan jarduna».

47. Europako Justizia Auzitegiak **jarduera hitzartu** deitu zion enpresen arteko koordinazio mota bati, berariazko akordiorik gabe gauzatu arren, lehiaren arriskua elkarren arteko lankidetzaren praktikoaren bidez jakinaren gainean ordezkatzeko dituenari, hain zuzen¹². Lehiaren Defentsarako Auzitegiak lehiaren kontrako jokabide irizten die merkatuko lehia-baldintzek edo -egiturek modu naturalean azaldu ezin dituzten jokabide berdinei, bide ematen baitute

¹¹ Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren Seigarren Sekzioaren Epaia, 2013ko apirilaren 12koa, 395/2011 Errekurtsoa. OJ 3.

Ildo berekoa da Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren Seigarren Sekzioaren Epaia, 2015eko martxoaren 25ekoa, 76/2012 Errekurtsoa, OJ 2.: «instrukzio- eta erabaki-faseen arteko banaketa, bistakoa da banatuta daudela, ez da errekurtsogileak asmo duen bezain zurruna, modu argian ondoriozta daitekeenez 15/2007 Legeari erreparatuta (36.1. artikulua 18 hilabete epe bakarria ezartzen du, bateratua, instrukzioa egin eta ebazpena emateko)». Era berean, Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren Seigarren Sekzioaren Epaia, 2015eko martxoaren 20koa, 249/2011 Errekurtsoa.

¹² Erreferentzia historikorik nahi izanez gero, ikus Europako Justizia Auzitegiaren 1972ko uztailaren 14ko 48/69 auzia, Imperial Chemical Industries Ltd. enpresarena. Batzordea. Europako Justizia Auzitegiaren epaiak: 1975eko abenduaren 16koak, 40 eta 48/73 arteko auziak, 50/73, 54 eta 56/73 artekoak, 111/73, 113 eta 114/73, Cooperative Vereniging Suiker Unie UA eta beste batzuk/Batzordea; 1993ko martxoaren 31koa, Ahlström Osakeyhtiö eta beste batzuk/Batzordea, C-89/85, C-104/85, C-114/85, C-116/85, C-117/85 eta C-125/85 eta C-129/85 artekoa; 1999ko uztailaren 8koa, C-199/92 auzia, Hüls/Batzordea; 1999ko uztailaren 8koa, C-49/92 P auzia, Batzordea/Anic Partecipazioni; 2009ko ekainaren 4koa, C-8/08 auzia, T-Mobile Netherlands BV, KPN Mobile NV, Vodafone Libertel NV, Orange Nederland NV eta Raad van bestuur van de Nederlandse Mededingingsautoriteit; 2009ko urriaren 6koa, pilotutako auziak, C 501/06 P, C-513/06 P, C-515/06 P eta C-519/06 P, GlaxoSmithKline Services Unlimited Europar Batasunaren Batzordearen aurka, eta beste batzuk; eta 2013ko abenduaren 5koa, C-449/11 P auzia, Solvay Solexis SpA/Batzordea.

operadore ekonomikoen artean espresuki frogatu ezin daitezkeen isilbidezko akordioak edo koordinazio-moduak daudela pentsatzeko¹³.

Bestalde, doktrinaren arabera, **nahitako jokabide paraleloak** operadore ekonomiko batzuek, elkarren arteko akordiorik edo itunik gabe, aldebakartasunez baina modu bateratuan, bere jokabidea beste lehiakide batenera edo batzuenera egokitzeko gauzatutako jokabide mugatzaileak dira, norgehiagoka ekiditea xede dutenak¹⁴. Jokabide horiek hiru osagai dituzte: jokabide-berdintasuna, berdintasun horren nahitakotasuna eta lehiaren aurkako helburua edo emaitza. Ezaugarri horiekin eratu da kontzeptua, Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren jokabidearen bidez¹⁵.

Nahitako jokabide paraleloena figura anbigua da, eta oso gertu dago jokabide hitzartu izatetik, Henkel Ibéricaren kasuko ebazpenean argi geratu zenez; Lehiaren Defentsarako Auzitegiak bi figura horiek «lankidetzajokabide» izenarekin batu zituen, honela definituta: parte-hartzaileen jokabideak azaleratzen duen koordinazio mota, lehiakideak jakinaren gainean modu koordinatuan jardutera daramatzana¹⁶.

Halaber, Lehiaren Defentsarako Auzitegiak, lider barometrikoaren teoriari aipamen egin eta gero, honakoa adierazi zuen: «operadore-talde batek geroago egingo balu bat gainerakoaren tarifa-berdintasunarekin, jokabide horri nahitako jokabide paralelo deitu ahalko litzaioke»¹⁷.

Ondorioz, Auzitegi Gorenaren eta Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren jurisprudentziarekin bat etorriz, 1. artikulua aplikatu behar zaio kolusio-jokabide orori, edozein dela ere gauzatu den modua (akordioak, talde-erabaki edo gomendioak edo jokabide hitzartuak edo nahita paraleloak)¹⁸.

Tipikotasun horri dagokion jokabide motaren bat gauzatu ote den egiaztatu behar da.

¹³ Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren ebazpena, 1999ko apirilaren 15ekoa, Azukreei buruzkoa.

¹⁴ NAVARRO SUAY, M., "Las conductas conscientemente paralelas: revalorización del concepto", *Gaceta de la UE y de la Competencia*, 232 zk., 2004ko uztaila-abuztua, 54. or.

¹⁵ Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren Ebazpenak; 1986eko ekainaren 18koa, Española de Zinc enpresarena; eta 1987ko urtarrilaren 9koa, Asturiana de Zinc enpresarena.

¹⁶ Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren Ebazpena, 1992ko martxoaren 6koa, 306/91 Espedientea, FD 5., Henkel Ibéricarena.

¹⁷ Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren Ebazpena, 2001eko ekainaren 4koa, 492/00 Espedientea, FD 2., Hormigón de Gerona enpresarena.

¹⁸ Ikus Auzitegi Gorenaren epaia, 2011ko otsailaren 1ekoa, Auzien Salako 3. Sekzioa, 2688/2008 errekurtsua, ZO 2., edota Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren Ebazpena, 2004ko uztailaren 22koa, 565/03 Espedientea, ZO 14., Material erradiaktiboei buruzkoa.

48. Espediente honetan, egindako instrukzioa dela medio, ondoriozta daiteke espedientepeko 16 autoeskolek B. mailako gida baimena lortzeko eskola praktikoetan aplikatutako **prezioak uniformetasun gero eta gehiago** izan duela 2010-2013 aldian.

Zehaztutako merkatu adierazgarrian 19 autoeskola jardun dira aztertutako aldian (Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak 2012ko urriaren 29an posta elektronikoz helarazitako informazioaren arabera). Horietako bat espedientetik kanpo geratu da erreferentziazkoek baino tarifa txikiagoak aplikatzeagatik. Beste bi espedientetik kanpo geratu ziren, espedientea abiarazterako utzia ziotelako jarduteari (246 bis eta 430 eta 431 arteko folioa).

Horrenbestez, espedientea abiarazi zen unean, merkatuan ziharduten guztiek izan dute aipatutako jokabidea, batek izan ezik.

49. Aztertutako tarifak **nabarmen handiagoak** dira antzeko ezaugarri demografikoak dituzten hirietan baino (14.236 eta 14.300 arteko folioak). Txostenean jasotako azterketa ekonomikoaren arabera, Gasteizko prezioak nabarmen handiagoak dira inguruko hirietakoak edo Gasteizen antzeko biztanle-kopurua dutenetakoak baino. Esaterako, Logroño (2013an, prezioa Gasteizen baino % 80,53 txikiagoa zen) eta Bilbo (urte berean, prezioa % 58,72 txikiagoa) (ikus azterlan osoa eta dagozkion taulak espedientearen 14.236 eta 14.300 arteko folioetan).

Argitu beharreko auzia da zein diren prezio handiago horren arrazoiak; zerbitzuaren kostuak oso desberdinak diren Gasteizen, edo handiagoak, beste hiri batzuen aldean.

Zerbitzuaren kostua aztertzeko, kontuan hartu dira erregaiaren prezioa, hiri-lurzoruko metro koadro baten prezioa eta alokairuko metro koadro baten prezioa. Lehenak eragin zuzena du eskola praktikoaren kostuan, bigarrenak, aldiz, kostu finko edo egiturazkoetan (14.236 eta 14.300 arteko folioak).

Hautatutako hirietan, elementu horien prezioak konparatuta, ezin da ondorioztatu Gasteizko autoeskolek aplikatutako tarifak handiagoak izan behar direnik. Erregaiaren prezioa zertxobait handiagoa da Araban Bizkaian baino, baina horrek ez du azaltzen zergatik dagoen horrenbesteko aldea Gasteizen hartutako eskola praktikoaren eta Bilbon hartutakoaren artean.

Aldeen alegazioen arabera, lokalen alokairuen konparaketa probintziara egin da, ez hiriburura. Espedientearen arabera (14.236 eta 14.300 arteko folioa), Prime eremuko hiri-lurzoruko metro koadro baten prezioa hartu da kontuan; hau da, aztertutako elementua probintzia-hiriburuei dagokie.

Era berean, alegazioetan adierazi da okerra dela, espedienteak dioten bezala, autoeskolek gidariei Espainiako Hitzarmen Kolektiboaren arabera ordaintzen dietenik, autoeskola batzuetan ordaindutako soldata garbia hitzarmen horretan ezarritakoa baino askoz ere handiagoa denez. Zehaztapen horrek enpresek

eskola praktikoetan lehiakideek baino prezio garestiagoa aplikatzea azal lezake, ez ordea, denak bat etortzea horretan. Horrenbestez, LEKaren iritzian, alegazio horrek ez ditu espedientearen ondorioak itxuragabetzen.

50. Egiaztatuta geratu den legez, **askotariko elementuek osatzen dute tarifa**, B. mailako gida baimena lortzeari dagokionez: matrikula eta ikastaro teorikoa, eskola praktikoak, azterketak eta zergak. Horien artean garrantzitsuena eskola praktikoena da, dagokien zenbatekoak baimenaren prezio osoan duen zamarengatik. Espedientean egindako azterketa ekonomikoaren arabera (13.431 eta 13.451 arteko folioak, eta 14.236 eta 14.300 artekoak), batez bestean, horiei dagokien zenbatekoa B. mailako gida baimenaren kostu osoaren % 70 da.

Tarifaren gainerako elementuak tasen arabera finkatzen dira, edo askotariko elementuek osatzen dituzte, eta oso zaila da erabiltzaileentzat prezioak konparatzea autoeskolek egindako eskaintzetan. Horrenbestez, autoeskolen arteko lehiaren funtsezko elementua eskola praktikoaren prezioa da, eta, kasu honetan, egiaztatuta dago prezioak hitzartu egin direla.

51.Hitzarmenik egon den zehazteko, kontuan hartutako elementua eskola praktikoa da.

Eskola praktikoaren iraupenari buruz desadostasuna agertu dute enpresa batzuek, autoeskola guztietan ez dela berdina argudiatuta. Hala da, iraupen gutxieneko eta gehieneko eskola praktikoen artean 5 eta 10 minutu arteko aldea dagoelako (bost autoeskolek 50 minutuko eskola eskaintzen dituzte; hiruk, 55 minutukoak; eta 4k, 60koak).

Minutu-desberdintasun hori erabiltzaileen erabakian aski esanguratsua den aztertu behar da.

Autoeskolek eskaintzen dutena, ordea, eskola praktikoa bera da –hori da kontratazio-unitatea–, ez minutu-kopuru jakin bateko eskola praktikoa. Ikasleek nahiz autoeskolek helburua lortu ahal izateko –gida baimena, noski– beharrezkoa den eskola praktikoen kopurua kalkulatzeko dute. Eskolak irauten duen minutuen aipamena (eskaintzen arteko aldea ezdeusa izanik) hutsala da, ez baitu ikaslegaien erabakia –eskaria– baldintzatzen. Berez, eskola praktikoen iraupena autoeskolak berak finkatzen du, ikasleek negoziatzeko edo horretan eragiteko gaitasunik ez dutela.

Ondorioz, eskola praktikoaren iraupena ezin da balioetsi eskaintzaileen prezioak berdintzeko irizpide gisa¹⁹.

¹⁹ Ikus Lehiaren Batzorde Nazionalaren Ebazpena, 2010eko urtarrilaren 21ekoa, S/0084/08 Espedientea, gel-fabrikatzaileena.

Eskola praktikoen iraupena autoeskolak eta bezeroek sinatutako kontratuan jasota dagoen arren, ikasleek jasotako eskola praktikoen guztien egiazko iraupena egiaztatzea zail du

52. Egitateak egoki sailkatzeko, kontuan hartu behar da prezio hitzartu izan daitezkeela berdin-berdinak ez direnak ere.

Operadoreen artean hitzarmena egoteko ez da ezinbestekoa aplikatutako tarifak berdin-berdinak izatea, Auzitegi Nazionalak adierazitakoaren arabera:

«hitzarmena egon dela ondorioztatzeko ezin eskatu dezakegu tarifak berdin-berdinak izatea, tarifen arteko antzekotasuna ere hitzarmena egon dela uste izateko arrazoizko argudioa delako, baldin eta antzekotasun horiek lehia mugatzeko edo faltsutzeko egoki gerta badaitezke»²⁰.

Adierazpen horretan ez da zehazten zenbatekoa behar lukeen izan hitzarmena egon dela zehaztu ahal izateko gehieneko desbiderapen-ehunekoa, hortik gora legokeena hitzartze-jokabidetik salbuetsi ahal izateko. Horrenbestez, lehiaren defentsarako agintariak ezarri eta justifikatu behar dute, kasuan kasuko baldintzen arabera.

Adierazpen horren babesean, instruktoreak antzeko tarifa zeri esaten zion zehaztu zuen egitateak zehazteko agirian: autoeskola batek edo batzuek aplikatutako tarifa gainerako autoeskolek aplikatutakoaren % 4 edo txikiagoa denean. Ehuneko hori dela medio, **tarifa berdin-berdinarekiko aldea 1,5 eurokoa** izan behar da gutxienez.

Aipatutako jurisprudentzia kontuan hartuta, erabateko berdintasuna egotea ez dela beharrezkoa arau-haustea egon dadin, LEKak arrazoizko deritzo % 5etik beherako antzekotasun-bitarteari, kopuru horretatik aurrera gerta daitekeelako erabiltzaileek hiriko beste autoeskola bat hautatzea, bertaratzeko denbora-kostuari jasangarri iritzita.

Hala bada, LEKaren iritzian, eta jokabide hitzartua egiaztatzeke, bat datozen tarifa dira elkarren artean % 4 edo gutxiagoko aldea dutenak, eta tarifa desberdin, berriz, elkarren artean % 4,01 edo gehiagoko aldea dutenak.

53. Autoeskola gehienek antzeko prezioak dituzte, edo erreferentziazkoarekiko ia alderik ez dutenak, baina oso desberdinak kostuen egiturako elementuei dagokienez, lokalen, ibilgailuen eta langileen kopuruan kasu (folio hauetan ageri dira: 442, 461, 484, 499, 512, 550, 628, 632, 637, 744, 769, 819, 828 eta 830 artekoak, 884, 899, 1.122, 1.127, 1.129, 1.131, 1.136 eta 1.137 artekoak, 1.138, 1.139, 1.155, 1.158, 1.194, 1.195, 1.208 eta artekoak 1.209)²¹. Kostu-

erabiltzaileak, eta justifikatzea ezinezkoa zaie autoeskolei. Izan ere, bezeroak sinatzen duen agiriak ez du bermatzen eskola praktikoa zehazki kontratuan ezarritakoa iraungo duenik, desbiderapen txikiena ere izan gabe. Egiaztatzen duena da eskola praktikoa egiatan gauzatu dela. Ez dira bezeroaren bi sinadura agertzen, zerbitzu-hasierakoa eta amaierakoa, ezta zerbitzuaren hasiera- eta amaiera-orduak ere, berak eskuz idatzita.

²⁰ Auzitegi Nazionaleko Auzien Salako 6. Sekzioaren indarreko epaia, 2004ko uztailaren 19koa, 853/2001 Errekurtsoa, hirugarren oinarri juridikoa, 3. or.

²¹ Enpresen kostu-egiturak baldintzatzen du zerbitzua eskaintzen duten merkatuan lehiakor izateko gaitasuna, lehiakideekin konparatuta. Halaber, produktuen edo zerbitzuen prezioen

aldagaien sakabanatzea are agerikoagoa da aldagai horien berezko alderdiak aztertuz gero.

- Autoeskolaren kokapenak lokalaren alokairua baldintzatzen du, ez duelako prezio berdina hiri erdian edo bazter-auzo batean. Gainera, kostu-egitura ere aldatu egiten da, instalazioak edo lokalak alokairuan dauden edo jabetzakoak diren gorabehera.
- Ibilgailuen antzinakotasunak eragina du gastuan, kontsumoari, azterketei eta konponketei dagokienez kasu, desberdina dena ibilgailua berria edo kilometro asko egindakoa izan.
- Autoeskoletako langileetan ere kostu-estrategia desberdina da, administrariak kontratatu edo horien zereginenez irakasleak edo zuzendariak beraiek arduratu.
- Egoitza bat baino gehiago irekitzea enpresa-estrategiako erabakien seinale da; gastuak desberdinak dira, baita fakturazioa areagotzen denean ere, kostu-egitura desberdina denaren seinale.
- Lokalen eta irakasleen errentagarritasuna aldatu egiten da mota bakar bateko gida baimena lortzeko prestakuntzara bideratzen diren edo mota gehiagotara bideratzen diren gorabehera (AM, A1, A2, A, B, BTP, B+E, C1, C1+E, C, C+E, D1, D1+E, D, D+E)²².
- Autoeskola batzuek beste prestakuntza ikastaro batzuk eskaintzen dituzte, gidaritza eraginkorra, IGA prestakuntza gidari profesionalentzat, puntu-berrerreskurapena, orga jasotzailea, salgai arriskutsuak, etab., kasu.
- Halaber, alde handia dago autoeskolek lortutako emaitzen artean, B. mailako gida baimena lortzera bideratutako ibilgailu bakoitzeko baimena lortu duen ikasle-kopuruari dagokionez; 2013an, 13,3 eta 43,8 artekoa zen ratio hori.

54. Autoeskolek eskaintako **zerbitzua** ez da homogenea. Hainbat alderdi dago autoeskolei aukera ematen diona produktu desberdindua eskaintzeko, eta, kostu-berdintasuna egonik ere, prezioak desberdinak beharko lirateke izan: kokapena, irakaskuntzaren kalitatea, ordutegiak, ekipo informatikoak eta ibilgailuak edota online tresnak. CLAXONen alegazioa har liteke adibide gisa; bezeroen artean preziatuena dela dio, zerbitzu kalitatezkoak eta askotarikoak eskaintzen baititu, eta, ondorioz, prezioak antzekoak izanda, bezeroek nahiago dutela horretara jo. Marka, prestigioa eta kalitate-prezio erlazio ona estimatzen dituztela dio. Bere iritzian, urte hauek guztiak jardunean egin ahal izan ditu zerbitzu ona eskaintzea delako bere filosofia eta teknologia berrietara egokitu delako. Bada, alegazioan azaldutako zerbitzu desberdin horiek, hain juxtu, prezioa desberdina izatea ekarri behar lukete.

55. B. mailako gida baimenaren **eskariaren elastikotasuna** oso da murrizta. Alegia, eskariaren merkatu-erantzun orokorra ez da ia aldatzen zerbitzuaren

zehaztapena baldintzatzen du. Hala bada, kostu-egitura eta etekin-aurreikuspenak berdin-berdinak balira, prezioa ere berdin-berdina edo berdintsua litzateke.

²² Gida baimen motak jasotzen ditu Gidarien Erregelamendu Orokorra onartzen duen maiatzaren 8ko 818/2009 Errege Dekretuaren 3. artikulua (EAO, 138 zk., 2009ko ekainak 8).

prezioaren aldaketan aurrean, B. mailako gida baimenak ez duelako egiazko ordezkorik merkatuan. Hori bai, norbanakoak sentiberak dira autoeskolek zerbitzua ematearen truke ezarritako prezioen arteko desberdintasunen aurrean. Alegia, autoeskola batek prezioa jaitsiko balu, bere eskariak gora egingo luke, lehiakideen merkatu-kuota gutxituta. Merkatuaren funtzionamendu normalaren ondorio litzateke hori, eskaintzaile ororen xedea modu eraginkorrean lehiatuz etekinak eta/edo merkatu-kuota handitzea denez; hots, lehiakideen bizkar kuota areagotzea.

56. Horrenbestez, egiaztatuta dago prezio-berdintasuna dagoela, egindako azterketaren arabera, ezin daitekeena arrazoi ekonomikoen bidez azaldu. B. mailako gida baimena lortzeko eskola praktikoaren prezioa ezin daiteke ulertu banakako enpresa-erabaki gisa.

Uniformetasun hori ezinbestean egotzi behar zaio espedientepeko enpresak lehiaren kontra jardun izanari. Aipatutako autoeskolek antzeko jokabidea dute tarifak aplikatzerakoan, ondo dakite tarifok uniformeak direla eta, ondorioz, uko egiten diote elkarren artean lehiatzeari kontsumitzailearen kaltetan.

Horrenbestez, ondorioztatu behar da Gasteizen B. mailako gida baimena lortzeko eskola praktikoaren prezioa uniformetzeko xedea izan duen jarduera hitzartua egon dela.

57. Zehapen-prozeduran presuntzio-froga aplikatzeak onarpen zabala izan du Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren aldetik, doktrinari erreparatuz gero²³. Era berean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak honakoa adierazi du: «froga hori ondorioztatu daiteke inferentzia aski sendo, argi eta zentzu berekoak badaude edo kontra egin gabeko izatezko presuntzio antzekoak badaude»²⁴. Era berean, Lehiaren Defentsarako Auzitegi eta Lehiaren Batzorde Nazional ohiek antzeko adierazpenak egin dituzte²⁵. Esaterako, 395/94 espedientearen ebazpenean adierazitako argudioa:

²³ Konstituzio Auzitegiaren 174/85 eta 175/85 epaiak, abenduaren 17koa; 150/1987, urriaren 1ekoa; eta 157/98, uztailaren 13koa. Auzitegi Gorenaren epaia, 1985eko uztailaren 26koa eta 1986ko azaroaren 18koa; eta Europako Justizia Auzitegiaren epaia, 1993ko martxoak 31koa, zur-orearena, As. C-89/85.

Konstituzio Auzitegiaren epaia (Lehen Sala), 63/2007 epaia, martxoaren 27koa; Konstituzio Auzitegiaren 120/1994 epaia; Konstituzio Auzitegiaren 73/1985 eta 1/1987 epaiak. Auzitegi Gorenaren epaia, 2002ko uztailaren 15ekoa, 2003\2320 JB.

²⁴ Irlanda Erresuma Batuaren aurka, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, 1978ko urtarrilaren 18koa, §161. Angelova Bulgariaren aurka, 38361/97 errekurtsioa, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, 2002ko ekainaren 13koa; Tahsin Acar Turkiaren aurka, 26307/95 errekurtsioa, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, 2004ko apirilaren 8koa; Natxova eta beste batzuk Bulgariaren aurka, 43577/98 eta 43579/98 errekurtsioak, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia. 2005eko uztailaren 6koa; Virabyan Armeniaren aurka, 40094/05 errekurtsioa, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, 2012ko urriaren 2koa.

²⁵ Ebazpenak, 1988ko uztailaren 4koa eta 13koa, urriaren 25ekoa eta azaroaren 2koa, 1990eko uztailaren 12koa, 1992ko uztailaren 8koa eta beste ebazpen batzuk. Auzitegi Nazionalaren epaia, 2013ko urtarrilaren 4koa.

Lehiako prozeduretan ohikoa da presuntzio-frogara jotzea arau-haustea egiaztatzeko, batez ere kolusio-jokabideen kasuan; izan ere, enpresek elkarren arteko akordioen zuzeneko frogarik uzten ez duten arren, emaitzak akordio horiei zor zaizkiela ondorioztatu daiteke²⁶.

Europako Justizia Auzitegiak ere errekurtsio hori erabili du²⁷. Azkenik, Lehiaren Euskal Agintaritzako organo erabaki-hartzailea den Lehiaren Euskal Kontseiluak hainbat ebazpen eman ditu presuntzio-froga oinarritzat hartuta²⁸.

Presuntzio-frogaren doktrinan ezinbestekoa da jokabide arau-hauslearen zantzuen eta egitateen arteko lotura aski arrazoitzea eta, egitateak azaltzen dituen ordezeko arrazoirik balego, aztertu eta ukatzearen zergatia adieraztea.

Hala bada, akordioa egoteak berarekin dakar prezioak bat etortzea modu naturalean ezin azaldu ahal izatea, enpresaren egiturari edo merkatuko lehiabaldintzei erreparatuta; kasu honetan, Gasteizen B. mailako gida baimena lortzeko eskola praktikoei dagozkienak.

Kostu-egituretan eta aztertutako ratioetan dauden desberdintasunak eta zerbitzua desberdintzeko aldagaiak egiaztatuta, ezin da arrazoizkotzat jo espedienteak barne hartutako Gasteizko autoeskolek eskainitako eskola praktikoen tarifek horrenbesteko antzekotasuna izatea. Kontrara, akordioaz edo nahitako jokabide paraleloaz gain, ez da hauteman beste arrazoirik tarifen berdintasuna azal dezakeenik.

3. Arau-haustearen larria

58. Lehiaren Defentsarako Legearen 62.4.a) artikulua honela zehazten du arau-hauste oso larria: «Kolusiozko jokaerak aurrera eramatea lege honen 1. artikuluan aurreikusitako moduan, baldin eta jokaera horiek elkarri lehia egiten dioten benetako enpresa edo enpresa potentzialen arteko kartel, akordio, erabaki edo gomendio kolektiboak, hitzartutako praktikak edo nahita paraleloak badira».

Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1.a) artikuluan jasotako jokabidea arau-hauste oso larritzat jo behar da elkarren arteko lehiakideek gauzatu badute.

Aipatutako jokabidea izan duten autoeskolak merkatu berean lehiatzen dira, Gasteizen B. mailako gida baimena lortzeko irakaskuntzan, hain zuzen.

²⁶ Lehiaren Defentsarako Auzitegia, 1998ko irailaren 30ekoa, gripearen aurkako txertoena, 395/94 Espedientea.

²⁷ Epaiak: 42/73 auzia, 1975eko abenduaren 16koa, Suiker kasuarena; 54/69 auzia, 1972ko uztailaren 14koa, gai koloragarriena; 172/80 auzia, 1981eko uztailaren 14koa, G. Züchner Bayerische Vereinsbank AG-ren aurka; 102/80 auzia, 1983ko ekainaren 7koa, Hi-Fi Pioneer kasuarena; eta 86/82 auzia, 1984ko otsailaren 21ekoa, Hasselbad kasuarena.

²⁸ Ebazpena, Lehiaren Euskal Agintaritzarena, 2013ko maiatzaren 21ekoa, 05/2012 Espedientearena, Pinosoloko lehiaketari buruzkoa.

4. Enpresen erantzukizuna arau-hausteetan.

59. Konstituzio Auzitegiak eta Auzitegi Gorenak behin eta berriro ezarritako jurisprudenziarekin bat etorri –Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak horixe jaso du 761/2011 epaian, 2011ko azaroaren 14koan, eta 73/2012 epaian, 2012ko otsailaren 6koan, kasu–, administrazio-erantzukizunaren esparruan, ez da aski jokabidea tipifikatuta egotea eta zuzenbidearen aurkakoa izatea, **erruzkoa** ere izan behar baita. Erruduntasuna elementu saihestezina da zehapen-zuzenbidea aplikatzeari dagokionez, eta izandako jokabidea espedientepekoari egotzi ahal izatea beharrezkoa du, izan doloa dela medio, izan zuhurtziagabekeria dela medio; alegia, subjektuak nahitako jokabidea izatea, edo ez ohartzea bere jokabideak –izan beharreko arreta egokia alboratzeagatik– lehia askea erasaten duela edo erasan dezakeela.

Horrenbestez, Auzitegi Gorenaren 2010eko uztailaren 6ko epaiaren arabera, «erruduntasuna tipifikatuta dagoen eta zuzenbidearen kontrakoa den egintza baten egileari (ekintzaz edo ez-egitez) zuzendutako egozte-judizioa da; horretarako, ezinbestekoa da egileak, ekintzaz edo ez-egitez, legez kanpoko jokabidea izatea; berari egotzi ahal izatea, bere jarduteko gaitasunari eragiten dioten baldintzak ez direla medio; eta erruduna izatea, jakinaren gainean eta nahita, asmoz zein erruz jarduteagatik». Gehiago ere dio epai horrek berak: «Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren Legeak ez du betekizun hori espresuki jasotzen administrazio arau-haustek egiteari dagokionez, baina, itxura batean, bi puntu zehatzetan jokabide arau-hauslearen alderdi subjektiboak kontuan hartzen ditu. Batetik, *in fine* 130.1 artikuluan dio arau-hausletzat har daitezkeela araua bete ez dutenak ere; hau da, erruduntasunaren betekizun subjektiboa ezinbestekotzat ez hartzea ondoriozta daiteke horretatik guztiagatik, edo, bestela esanda, erantzukizuna izatea errurik eduki ez arren. Bestalde, 131.3.a) artikuluan, zehapenak mailakatzeko irizpideen artean nahitakotasunarena aipatzen da, erruduntasuna baztertuta, itxura batean, arau-haustearen elementu erabakigarri gisa. Gaur egun, ordea, ez dago zalantzarik betekizun horren gainean, administrazio-zuzenbide zehatzailearen esparruan. Funtsezko betekizuna da, beraz, arau-hauste administratibo orotan, eta hori aitortu dute Auzitegi Gorenak eta Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro, ezarritako jurisprudenzian. Ondorioz, ezinbesteko betekizun bihurtu da. Hori dela eta, subjektu arau-hauslearen jokabidean erruduntasuna hauteman behar izatea zuzenean lotuta dago segurtasun juridikoaren eta legaltasunaren konstituzio-printzipioetara, edonolako zehapen-ahalak gauzatzeari dagokionez. Erruduntasun-printzipioa oinarrizko elementua da pertsona baten jokabideari zehatzeko moduko irizteko; alegia, funtsezko elementua da legez kanpoko administrazio-egintza guztietan. Gainera, jokabide arau-hauslearen azterketan ez ezik, inguruabar astungarriak zehazterakoan ere eragiten du».

Aipatutako Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaien arabera, errua errugabetasun-presuntzioaren esparru funtzionalean kokatuta dago. Presuntzioa, besteak beste, zeharkako edo zantzuen arabera frogaren bidez suntsi daiteke, berez erruduntasunik zehazten ez duten ziurtzat jotako egitateak aski direnean erruduntasuna ondorioztatzeko.

60. Gasteizen B. mailako gida baimena lortzeko eskola praktikoan irakaskuntzan ÁLAVA, AÑUA, CLAXON, GASTEIZ, GORBEA, MENDIKO, OLARIZU, ARCINIEGA, KM0, SAN PRUDENCIO, ZALDIVAR, MENDIZORROZA eta AURRERA autoeskolen prezioak bat etortzea jakinaren gaineko eta nahitako jokabide baten ondorio da.

Baiki, autoeskola batek gainerakoaren tarifa berdina edo oso antzekoa ezartzea enpresa-erabakia da, merkatuan lehiatzeari nahita eta jakinaren gainean uko egitea dakarrena, eta hainbat ondorio ditu.

A. Aranbizkarra, Leceta eta Zadorra

61. Instruktoarek ebazpen-proposamenean adierazitakoaren arabera, espedienteko gertakariak frogatuta daude eta ezin da ondorioztatu ARANBIZKARRA, LECETA eta ZADORRA autoeskolek Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1.a) artikuluan ezarritakoa urratzen duen jokabiderik izan dutenik. Izan ere, enpresa horiek aipatutako tarifa aldiaren behin eta % 100eko aldearekin aplikatu izan dute (horietako batek jarduteari utzi dio).

Horregatik guztiagatik, LEAk erabaki du Ikerketa Zuzendaritzak autoeskoloi buruz egindako ebazpen-proposamena baiestea, arau-haustean parte hartu dutenik ezin izan baita frogatu.

B. Gorbea

62. Espedientean frogatu diren gertakarietatik ondorioztatu daiteke GORBEA autoeskolak, oro har, aipatutako tarifa aplikatu duela B. mailako gida baimenak lortzeko eskola praktikoetan lehen, bigarren, laugarren eta seigarren aldietan.

Aldian behingo jokabidea izaki, instruktoarek iritzi du ezin daitekeela frogatu enpresak jokabide hitzartuan parte hartu duenik.

LEAren iritzian, ordea, aztertutako sei aldietatik lautan enpresaren jokabidea hori izaki eta horietan guztietan kontratuen % 90 baino gehiagotan tarifa hori aplikatuta –espedientean eta egitateak zehazteko agirian egiaztatu denez–, esandako aldietan behintzat jokabide hitzartuan parte hartu duela ondorioztatu daiteke, eta, ondorioz, arau-haustezat har daitekeela²⁹.

²⁹ Ebazpen eta instrukzio fasean bestelako balorazio bat egiteko aukerari dagokionez, ikusi Auzitegi Gorenaren epaia, 2012ko uztailaren 15ekoa.

Hala eta guztiz ere, espedientearen instrukzioan jokabideari aldi behingo iritzi zaio; enpresak legez kanpoko gertakarian parte hartu ez duela egiaztatu da. Inguruabar hori egitateak zehazteko agirian jasota dagoenez, eta, ondorioz, ebazpen-proposamenean, beharbada enpresaren defentsa-eskubidea mugatu da, espediente osoan egitateok aski frogatuta dauden arren. Hori dela eta, LEAren iritzian ez zaio zehapenik ezarri behar enpresa horri.

C. Álava, Añua, Claxon, Gasteiz, Mendiko, Olarizu, Arciniega, Km0, San Prudencio, Zaldivar, Mendizorroza eta Aurrera

63. Espedientearen frogatu diren egitateetatik ondoriozta daiteke ÁLAVA, AÑUA, ARCINIEGA, AURRERA, CLAXON, GASTEIZ, KM0, MENDIKO, MENDIZORROZA, OLARIZU, SAN PRUDENCIO eta ZALDIVAR autoeskolek lehia mugatzeko jokabideak izan dituztela, eta B. mailako gida baimena lortzeko eskola praktikoetan aipatutako tarifa aplikatu dutela nagusiki eta era jarraituan, horrenbestez, Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1.a) artikulua urratuz.

64.ÁLAVAK tarifa hori aplikatu du aztertutako denbora-tarte osoan: 2010 (lehen aldia), 2010 (bigarren aldia), 2011 (hirugarren aldia), 2012 (laugarren aldia) eta 2012 (bosgarren aldia) eta 2013 (seigarren aldia).

65. AÑUAK tarifa hori aplikatu du aztertutako denbora-tarte osoan: 2010 (lehen aldia), 2010 (bigarren aldia), 2011 (hirugarren aldia), 2012 (laugarren aldia) eta 2012 (bosgarren aldia) eta 2013 (seigarren aldia).

66. CLAXONEK tarifa hori aplikatu du aztertutako denbora-tarte osoan: 2010 (lehen aldia), 2010 (bigarren aldia), 2011 (hirugarren aldia), 2012 (laugarren aldia) eta 2012 (bosgarren aldia) eta 2013 (seigarren aldia).

67. GASTEIZEK tarifa hori aplikatu du aztertutako denbora-tarte osoan: 2010 (lehen aldia), 2010 (bigarren aldia), 2011 (hirugarren aldia), 2012 (laugarren aldia) eta 2012 (bosgarren aldia) eta 2013 (seigarren aldia).

68. MENDIKOK tarifa hori aplikatu du aztertutako denbora-tarte osoan: 2010 (% 16ko BEZa), 2010 (% 18ko BEZa), 2011, 2012 (% 18ko BEZa) eta 2012 (% 21eko BEZa) eta 2013.

69. OLARIZUK tarifa hori aplikatu du aztertutako denbora-tarte osoan: 2010 (lehen aldia), 2010 (bigarren aldia), 2011 (hirugarren aldia), 2012 (laugarren aldia) eta 2012 (bosgarren aldia) eta 2013 (seigarren aldia).

70. ARCINIEGAK tarifa hori aplikatu du 2010eko uztailaz geroztik: 2010 (bigarren aldia), 2011 (hirugarren aldia), 2012 (laugarren aldia) eta 2012 (bosgarren aldia) eta 2013 (seigarren aldia).

71. KM0k tarifa hori aplikatu du 2010eko uztailaz geroztik: 2010 (bigarren aldia), 2011 (hirugarren aldia), 2012 (laugarren aldia) eta 2012 (bosgarren aldia) eta 2013 (seigarren aldia).

72. SAN PRUDENCIOk tarifa hori aplikatu du 2010eko uztailaz geroztik: 2010 (bigarren aldia), 2011 (hirugarren aldia), 2012 (laugarren aldia) eta 2012 (bosgarren aldia) eta 2013 (seigarren aldia).

73. AURRERAK –2012ko irailean jarduten hasi zena– tarifa hori aplikatu du 2012ko irailaz geroztik: 2012 (bosgarren aldia) eta 2013 (seigarren aldia).

74. MENDIZORROZAK tarifa hori aplikatu du 2011z geroztik: 2011 (hirugarren aldia), 2012 (laugarren aldia) eta 2012 (bosgarren aldia) eta 2013 (seigarren aldia).

75. ZALDIVAREK tarifa hori aplikatu du modu ez jarraituan: 2010 (lehen aldia), 2011 (hirugarren aldia), 2012 (laugarren aldia) eta 2012 (bosgarren aldia) eta 2013 (seigarren aldia), ez ordea 2010eko bigarren aldian.

76. GORBEAK tarifa hori aplikatu du modu ez jarraituan: 2010 (lehen aldia), 2011 (hirugarren aldia), 2012 (bosgarren aldia) eta 2013 (seigarren aldia), ez ordea 2010eko bigarren aldian, ezta 2012ko laugarren aldian ere.

5. Zehapenaren zenbatekoa zehaztea.

77. Egiaztatu da ÁLAVA, AÑUA, CLAXON, GASTEIZ, MENDIKO, OLARIZU, GORBEA, ARCINIEGA, KM0, SAN PRUDENCIO, ZALDIVAR, MENDIZORROZA eta AURRERA autoeskolek tipifikatutako, zuzenbidearen aurkako eta erruzko arau-hauste oso larrian parte hartu dutela.

Zehapenak kalkulatzeko, kontuan hartu da arau-haustearen larritasuna; kasu honetan, oso larria.

Lehiaren Defentsarako Legeak 63.1.c) artikuluan jasotakoaren arabera, arau-hauste oso larrietan zehapena enpresa arau-haustearen isuna ezarri aurreko ekitaldiko negozio-bolumenaren % 10ekoa izatera hel daiteke³⁰.

³⁰ Auzitegi Gorenaren epaia, 2015eko urtarrilaren 29koa, lehia esparruko isunak kalkulatzeko metodoari buruzkoa.

Bestalde, Lehiaren Defentsarako Legearen 64. artikuluan ezarritakoaren arabera, zehapenen zenbatekoa ezartzeko honako irizpide hauei erreparatu behar zaie:

- a) Arau-haustek eragiten dion merkatuaren neurria eta ezaugarriak.
- b) Erantzulea den edo diren enpresen merkatu-kuota.
- c) Arau-haustearen zenbaterainokoa.
- d) Arau-haustearen iraupena.
- e) Arau-haustek zer nolako ondorioak izan dituen kontsumitzaile eta erabiltzaileen edo beste operadore ekonomiko batzuen eskubide eta bidezko interesetan.
- f) Arau-haustea dela eta bidegabeki zer nolako onurak eskuratu diren.
- g) Erantzulea den enpresa bakoitzaren kasuan, zer nolako gertakari astungarri edo aringarriak dauden.

78. Aztertutako arau-haustek merkatu adierazgarri ia osoari eragiten dio, eta arau-haustek, berriz, kontsumitzaileen legezko interesei, eskainitako zerbitzuaren prezioa garestitzea dela medio. Nabarmentzekoa da merkatu-kuota handieneko bi autoeskolek, CLAXONEk eta AÑUAK, eskola praktikoaren erreferentziazko prezioa aztertutako denbora-tarte osoan aplikatu dutela, eta hirugarrenak, KM0k, 2010eko bigarren sei hilekotik aurrera.

LEKa bat dator espedientearen instruktorearekin eta autoeskola arau-haustle guztietan inguruabar aringarri konkurritzaile deritzaio jokabide debekatua bezeroek ordaindu beharreko kontzeptu guztietara hedatu ez izanari, eskola praktikora mugatu izanari, beraz.

Hala ere, ez dator bat zehatutako jokabideak B. mailako gida baimenari bakarrik eragiten diola dioen arintze-irizpidearekin; izan ere, LEKaren iritzian, zehaztapen hori jokabideak eragindako produktu-merkatuari dagokio eta, ondorioz, ezin da aringarri izan jokabidea enpresak eskainitako produktu guztietara hedatu ordez produktu-merkatu bakar batera mugatzea.

79. Horrenbestez, LEKaren iritzian, zehapena honela kalkulatu behar da:

- **ÁLAVAK 2010eko urtarriletik 2013ra bitartean** aplikatu du tarifa modu jarraituan, eta bere merkatu-kuota, tarifa hori aplikatutako kontratuen ehunekoa eta 2014ko negozio-bolumena kontuan hartuta, LEKak 4.500 euroko isun-zehapena ezarri dio;

- **AÑUAK 2010eko urtarriletik 2013ra bitartean** aplikatu du tarifa modu jarraituan, eta bere merkatu-kuota, tarifa hori aplikatutako kontratuen ehunekoa eta 2014ko negozio-bolumena kontuan hartuta, LEKak 24.000 euroko isun-zehapena ezarri dio;

- **CLAXONEk 2010eko urtarriletik 2013ra bitartean** aplikatu du tarifa modu jarraituan, eta bere merkatu-kuota, tarifa hori aplikatutako kontratuen ehunekoa

eta 2014ko negozio-bolumena kontuan hartuta, LEKak 53.000 euroko isun-zehapena ezarri dio;

- GASTEIZek **2010eko urtarriletik 2013ra bitartean** aplikatu du tarifa modu jarraituan, eta bere merkatu-kuota, tarifa hori aplikatutako kontratuen ehunekoa eta 2014ko negozio-bolumena kontuan hartuta, LEKak 5.500 euroko isun-zehapena ezarri dio;

- MENDIKOk **2010eko urtarriletik 2013ra bitartean** aplikatu du tarifa modu jarraituan, eta bere merkatu-kuota, tarifa hori aplikatutako kontratuen ehunekoa eta 2014ko negozio-bolumena kontuan hartuta, LEKak 2.400 euroko isun-zehapena ezarri dio;

- OLARIZUK **2010eko urtarriletik 2013ra bitartean** aplikatu du tarifa modu jarraituan, eta bere merkatu-kuota, tarifa hori aplikatutako kontratuen ehunekoa eta 2014ko negozio-bolumena kontuan hartuta, LEKak 4.500 euroko isun-zehapena ezarri dio;

- ARCINIEGAK **2010eko uztailetik 2013ra bitartean** aplikatu du tarifa modu jarraituan, eta bere merkatu-kuota, tarifa hori aplikatutako kontratuen ehunekoa eta 2014ko negozio-bolumena kontuan hartuta, LEKak 4.500 euroko isun-zehapena ezarri dio;

- KMOk **2010eko uztailetik 2013ra bitartean** aplikatu du tarifa modu jarraituan, eta bere merkatu-kuota, tarifa hori aplikatutako kontratuen ehunekoa eta 2014ko negozio-bolumena kontuan hartuta, LEKak 8.500 euroko isun-zehapena ezarri dio;

- SAN PRUDENCIOk **2010eko uztailetik 2013ra bitartean** aplikatu du tarifa modu jarraituan, eta bere merkatu-kuota, tarifa hori aplikatutako kontratuen ehunekoa eta 2014ko negozio-bolumena kontuan hartuta, LEKak 18.000 euroko isun-zehapena ezarri dio;

- ZALDIVAREk **2011ko urtarriletik 2013ra bitartean** aplikatu du tarifa modu jarraituan, eta bere merkatu-kuota, tarifa hori aplikatutako kontratuen ehunekoa eta 2014ko negozio-bolumena kontuan hartuta, LEKak 10.000 euroko isun-zehapena ezarri dio;

- MENDIZORROZAK **2011ko urtarriletik 2013ra bitartean** aplikatu du tarifa modu jarraituan, eta bere merkatu-kuota, tarifa hori aplikatutako kontratuen ehunekoa eta 2014ko negozio-bolumena kontuan hartuta, LEKak 4.500 euroko isun-zehapena ezarri dio;

- AURRERAK **2012ko irailetik 2013ra bitartean** aplikatu du tarifa modu jarraituan, eta bere merkatu-kuota, tarifa hori aplikatutako kontratuen ehunekoa eta 2014ko negozio-bolumena kontuan hartuta, LEKak 4.000 euroko isun-zehapena ezarri dio;

GORBEAK tarifa hori aplikatu du modu ez jarraituan: 2010 (lehen aldia), 2011 (hirugarren aldia) eta 2012 (bosgarren aldia) eta 2013 (seigarren aldia) aldietan

aplikatu du, ez ordea 2010eko bigarren aldia, ezta 2012an (laugarren aldia) ere, eta kontuan hartuta ezin izan duela egoki gauzatu defentsa-eskubidea eta noizean behingo jokabide arau-hausleari ezin zaionez iritzi jokabide arau-hausle, ez zaio zehapenik ezarri.

VI. EBATZI DU

LEHENA.- Espedientean frogatuta dago Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1.a) artikulua urratu dela. Honako hauek dira arau-hausleak: AUTOESCUELA ÁLAVA SL, JOSÉ LUIS AÑUA AJURIA (AUTOESCUELA AÑUA), AUTOESCUELA SALAZAR SL (AUTOESCUELA CLAXON), AUTOESCUELA GASTEIZ SC, AUTOESCUELA MENDIKO SC, AUTOESCUELA OLARIZU SL, AUTOESCUELA ARCINIEGA SL, SUM SLL (AUTOESCUELA KM0), AUTOESCUELA SAN PRUDENCIO SL, MIGUEL ÁNGEL ZALDIVAR ORTIZ DE LATIERRO (AUTOESCUELA ZALDIVAR), AUTOESCUELA MENDIZORROZA SC eta RUBÉN LÓPEZ TATO (AUTOESCUELA AURRERA).

Bigarrena.- Honako zehapen hauek ezarri dira:

- AUTOESCUELA ÁLAVA SL enpresari 4.500 euroko zehapen-isuna,
- JOSÉ LUIS AÑUA AJURIAri (AUTOESCUELA AÑUA) 24.000 euroko zehapen-isuna,
- AUTOESCUELA SALAZAR SL enpresari (AUTOESCUELA CLAXON) 53.000 euroko zehapen-isuna,
- AUTOESCUELA GASTEIZ SC enpresari 5.500 euroko zehapen-isuna,
- AUTOESCUELA MENDIKO SC enpresari 2.400 euroko zehapen-isuna,
- AUTOESCUELA OLARIZU SL enpresari 4.500 euroko zehapen-isuna,
- AUTOESCUELA ARCINIEGA SL enpresari 4.500 euroko zehapen-isuna,
- SUM SLL enpresari (AUTOESCUELA KM0) 8.500 euroko zehapen-isuna,
- AUTOESCUELA SAN PRUDENCIO SL enpresari 18.000 euroko zehapen-isuna,
- MIGUEL ÁNGEL ZALDIVAR ORTIZ DE LATIERROri (AUTOESCUELA ZALDIVAR) 10.000 euroko zehapen-isuna,
- AUTOESCUELA MENDIZORROZA SC enpresari 4.500 euroko zehapen-isuna,
- RUBÉN LÓPEZ TATORi (AUTOESCUELA AURRERA) 4.000 euroko zehapen-isuna,
- AUTOESCUELA GORBEA S.COOP. enpresari 0 euroko zehapen-isuna.

HIRUGARRENA.- Zehapena ezarritako autoeskolei agintzea jokabide arau-hauslea eta helburu bereko jokabideak edo eragin bera dakartenak bertan behera utz ditzatela.

LAUGARRENA.- Zehapena ezarritako autoeskolei agintzea Lehiaren Euskal Agintaritzako Ikerketa Zuzendaritzaren aurrean aurkez dezatela zehapenisunaren ordainagiria.

BOSGARRENA.- Lehiaren Euskal Agintaritzako Ikerketa Zuzendaritza premiatzea ebazpen hau osorik betearaz dezan.

SEIGARRENA.- Espediente honek ez du frogatu Lehiaren Defentsarako Legea urratu denik J.A.S.A. (AUTOESCUELA ARANBIZKARRA), D.C.S. (AUTOESCUELA LECETA) eta AUTOESCUELA ZADORRA SL enpresen jokabidearekin.

Jakinaraz bekie ebazpen hau LEAko Ikerketa Zuzendaritzari eta interesdun guztiei, eta aditzera eman bekie ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipin dezaketela EAeko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita.